

XIII. aintzatespen prozesua: "Eskola Jasangarria"

2019-2020 Deialdia

ESKAERA

Eskola
Jasangarria
Ziurtagiria



Certificado
de Escuela
Sostenible

Eskaera/Solicitud

"Eskola Jasangarria / Escuela sostenible"

ESP. ZK. / Nº EXP	
-------------------	--

IKASTETXEAREN IZENA / NOMBRE DEL CENTRO: AXULAR LIZEOA	
PUBLIKOA EDO ITUNPEKO PRIBATUA / PÚBLICO O PRIVADO CONCERTADO	<i>Itunpeko pribatua</i>
HEZKUNTZAKO KODEA / CÓDIGO DE EDUCACIÓN: 012361	
HELBIDEA / DIRECCIÓN: Arostegi 10	
TELEFONO: 943316066	E-maila: hmayoz@axular.net / idazkaritza@axular.net
HERRIA / LOCALIDAD: Donostia/ San Sebastián	POSTA KODEA / CÓDIGO POSTAL: 20009
LURRALDEA / TERRITORIO: Gipuzkoa	
IFK / C.I.F.: F20046579	

Goian aipatutako ikastetxeak:

- 2018-2019 ikasturterako Hezkuntza Sailak, eta Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak argitaratutako "Eskola Jasangarria" aintzatespen deialdian parte hartzea eskatzen du eta dokumentazio horretarako datuak zehatzak direla egiaztatzen du.
- Erakunde onuradunak zin dagoela diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen baten, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Amaierako Seigarren Xedapenean ezarritakoetan ere.

Horretarako, eta ordezkari gisa, ikastetxeko zuzendariak eskabide hau sinatzen du.
Donostian, 2019ko abenduaren 13a

El Centro Escolar arriba mencionado:

- Solicita participar en la convocatoria de reconocimiento "Escuela Sostenible" de los Departamentos de Educación y de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda para el curso escolar 2018-2019, con la documentación detallada a continuación, y hace constar la exactitud de los datos reseñados.
- Declara no encontrarse incurso en ninguna prohibición o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluida la establecida en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Para lo que en su representación firma la presente solicitud la directora o el director del centro.
En Doonostia, a 13 de diciembre de 2019

Ikastetxeko zuzendariaren, izen abizenak
Nombre, apellidos del director o la directora del centro

Ikastetxeko zuzendariaren izenpea eta zigilua
Firma del director o la directora del centro y sello

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.
Eusko Jaurlaritzza

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, eskatzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla. Fitxategi horren helburua da diru-laguntzen deialdi hau eta gaiarekin lotutako beste edozein administrazio-espeditante ere kudeatzea. Fitxategiaren arduraduna Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza da. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideak sail bereko Zerbitzuen Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira. Horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea, 1 || 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Departamento de Medio Ambiente, Política Territorial y Vivienda. Gobierno Vasco

De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, se informa a los y las solicitantes que los datos que faciliten serán incluidos en un fichero con la finalidad de gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro expediente administrativo relacionado con la materia. El responsable de este fichero es la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Servicios del propio Departamento, dirigiéndose para ello a la calle Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 de Vitoria-Gasteiz (Araba).

1.- Jasangarritasuna

Jasangarritasuna hitza erabiltzen da euskaraz ingeleseko *sustainability* hitza itzultzeko. Latinean du jatorria, *sus tenere* terminoetan: gorde eta defendatu esan nahi du. Euskaltzaindiak, gaur egun, jasangarri eta jasangarritasun terminoak gomendatzen ditu, *sustainable* eta *sustainability* adierazteko. Kontzeptuak zera esan nahi du, inguru jakin batean, baliabide biofisiko, ekonomiko eta sozialak erabili behar direla inguru geografiko horren eraberritzeko gaitasunaren arabera, eta erabilpen horrek gaurko belaunaldientzat ez ezik, etorkizunekoentzat ere balio behar du, haientzat ere onurak eta beharrezko premiak beteta egon daitezen.

Jasangarritasunak oinarritzko bi kontzeptu hartzen ditu: bata dira *premiak*, bereziki munduko alde behartsuenetako premiak (lehentasuna behar lukete horiek), eta bestea *mugak*, gure planeta mugatuaren naturaren mugak. Ez dago jasangarritasunerako errezetarik, eta jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzan ere ez dago. Ekintza-hausnarketa, auto-ebaluazioa eta ikerketa dira metodoa jarduerak garatzeko alor honetan.

Eskolako Agenda 21en, jasangarritasuna helmuga da, eta harantz gerturatu behar dugu, urratsez urrats, heziketa prozesuan ezagutza, prozedura eta jarrerak landuz; gainera, hezkuntza-komunitateak eskolako eta herriko bizitzan inplikatu behar du, eta kudeaketan ere arduratsu jokatu behar da natura-baliabideak kontsumitzeko, produktu eta zerbitzuak erabiltzeko eta sortzen diren hondakinak tratatzeko. Ingurumen-sentsibilizazioan du oinarria jasangarritasunak. Hau da, natura-ingurunea gure bizitzaren parte dela sentitu eta gozatu, enpatia izan izaki bizidunekin, eta gu ere planeta honen parte garela sentitu, jakinda baliabideak mugatuak direla, eta arretaz kudeatu behar ditugula.

Jasangarritasuneko heziketak ekintza praktikoak eskatzen ditu, eta ohiko bihurtu diren eta ezarritako jardueren gainean hausnarketa egin behar da, gero erabakiak hartzeko.

Hausnarketaren ondorioak erabaki bihurtuko dira eta erabaki horien helburuak ez dira horrenbeste begien bistako emaitzak, baizik eta ikasketa prozesua eta ikasleen konpetentziak: pentsaera konplexua eta kritikoa, begirunea, balioen zehazpena eta argitzea.

Pentsaera kritikorekin ez du negatibismorik adierazi behar, baizik eta ikuspegi globalak lantzea, aukerak, soluzioak eta bideak modu irekian eta sormenarekin lantzea, beste toki eta garai batzuetako erreferentzia arrakastatsuak bilatuz.

Are gehiago, balioen argitzea giza-aniztasunaren errespetu balioetan oinarritzen da eta balio berriak aurkitzeko beste alor batzuetan aplikatu behar dira. Gaur egungo jarrera moral hedatuta dugu "hemen eta orain" jardutea, axolarik gabe zer gerta daitekeen "beste nonbait eta etorkizunean". Gehitu horri irudikeria eta kontsumismorako estimulua. Gozamina edo onura ematen digun guztia ez da ona edo posiblea. Hausnarketa horixe, naturarekin dugun harremana ikuspegi etiko berri baten argitan berrikustea, oinarritzko zutoina da ingurumen hezkuntzarako. Zaila da balioak aldatzea edo transmitzea. Baliook negoziatzen eta eraikitzen ahalegin jarraitua behar da. Gure gizartean sarri nahastu egiten dira balioak, iritziak eta erabakiak, eta horien artean bereiztea ez da prozesu erraza ikasleentzat.

Eskolako giroan eta hezkuntza-komunitatearen parte hartzean eragin positiboa izan dezake jasangarritasuneko hezkuntzak. Adibidez, ikasle eta irakasle berriak datozenean, haienganako arreta hobetu daiteke harrera protokolo bat badugu, elkarbizitza planaren parte bada, hezkuntza-komunitateko estamentu guztietara iristen bagara, eskolaz kanpoko ingurumen kanpainetan parte hartzen badugu, edota agerikoa egiten bada ikastetxeak ingurumenarekin duen konpromisoa. Alderantziz ere, eskolako giro ona pizgarria izan daiteke ingurumen hezkuntzarako, jasangarritasunarekiko jarrera jator, abegikor eta kontsekuentea bada.

Eskolako Agenda 21erako garrantzitsua da halaber eskola-komunitateko partaide guztiak jakitun izatea zein den beren papera eta ekarpena. Langile ez irakasleak, familiak eta irakasleak ezinbestekoak dira egunero errespetua lantzeko, eskolako baliabideak zaintzeko, arau demokratikoetan konfiantza eta giro ona izateko ikasleei eskainitako harreman eta irakaskuntzan.

Alor hauetan adibide onak izan daitezke ordutegi kointzidentzien gaineko akordioak auto-prestakuntzarako eta hausnarketarako, harrera protokoloak, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasotako oinarriak, edo ikastetxeen ideia-egitasmoak, horiek bat badatoz jasangarritasunarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin.

Era berean, garrantzitsua da aldiro ikastetxeko giroak eta funtzionamenduaz hezkuntza-komunitateak duen iritzia jasotzea.

1.- Jasangarritasuna		
	Kalitate irizpideak	Balioa
1.1 Sentsibilizazioa	1.- Ingurumen arazoei buruzko sentsibilizazio-plana badago.	9
	2.- Komunikazio eta informaziorako bide argiak daude ezarrita, adin eta estamentu desberdinentzat egokiak.	9
	3.- Landu egiten da: gizakia biosferaren parte izatearen ikuspegia, natura-ingurunearen balorazioa eta naturaren gozatze arduratsua.	8
	4.- Ikastetxeak ikasleen motibazioa sustatzen du Eskolako Agenda 21en parte hartzeko.	8

Ebidentziak:

1.EA21 programan garatzen den fase bat da urtero burutzen duguna.

Ikus: *IB aktak; Klaustroko aktak; Webgunea EA21 proiektua; EKKS (Erabateko Kalitate Kudeaketarako Sistema);*

2.Bide eta tresna ezberdinak erabiltzen dira komunikaziorako. Estamentu guztiei zuzenduta.

Komunikazioa emailez, Inika bitartez, webgunea erabiliz, sare sozialen bitartez, Klaustro zein beste barneko bileren bitartez ... bermatzen da.

Ikus: *INIKA; Bilera orokorrak aktak; Webgunea;*

3.Mota askoko ekintzen bitartez (Flysch irteera, Azterkosta lehiaketa, Eureka zientzi museora irteerak, Pagoetara, Cristina Eneara ...) lantzen dugu gizakia naturaren parte izatearen ikuspegia. Naturaren balorazioa ezinbestekoa da eta modu arduratsuan gozatzeaz eta disfrutatzeaz lantzen dugu. Zentroko urteko planean eta ekintza planean (Excel dokumentua) agertzen dira lantzen ditugun ekintzak.

Ikus: *ZUP; Webgunea; EKKS;*

4. Ikastetxea girotuta dago. Ikasleek girotze horretan parte hartzen dute. Ikasgeletan EA21 bultzatzen da. Hainbat ekintza berritzaile eraman ditugu aurrera, protagonistak ikasleak izanda. Fruta egunetan, Ekolo Haur hezkuntzako geletatik pasatzen da bisitan. Bisita horietan birziklapenaren, eta ura zein argiaren erabilera arduratsuen inguruan hitz egiten du. Sari moduan fruta banatzen da. Ekolo, batxilergoko ikasleak dira. Baratzea etapa guztietara zabaltzen hasi gara. Txoko berdearen horniketaz eta portfolioaz ikasleak arduratzen dira.

Ikus: *Txoko berdea; Baratzeko portfolioa; Baratzea; Ekolo mozorroa; Dekalogoia;*

1.2 Hausnarketa	5.- Ikastetxearen dokumentuetan, misioan, plangintza estrategiko edo politikoan, jasota daude jasangarritasunaren inguruko hausnarketa eta planteamendu etikoa.	10
	6.- Irakasle guztiek dute denbora eta toki jakin bat sistematikoki ezarrita hausnarketa egin dezaten jasangarritasunaz, Eskolako Agenda 21ez, ingurumen hezkuntza eta didaktikaz.	8
	7.- Kontuan hartzen dira jasangarritasunaren oinarriko kontzeptuak (premiak eta mugak), eta helburuak (gaurko eta etorkizuneko premiak bete), ikastetxearen antolakuntzaz eta kudeaketaz erabakiak hartu behar direnean.	8

Ebidentziak:

5. Ikastetxearen plan estrategikoko helburuetan, ZUPean ... jasangarritasunaren inguruko hausnarketa eta planteamendua jasota dago. Jasangarritasunarekiko konpromiso argia dago.

Ikus: *Webgunea; ZUP; 19-20 plan estrategikoaren helburuak;*

6. Zuzendaritza bilerak, klaustro bilerak eta IBko bilerak erabiltzen ditugu hausnarketa egiteko eta hobekuntzak planteatzeko. Hausnarketa hau gure interes taldeen asetasun inkestetarik eta ondorengo AMIAtik hornitzen dugu. Irakasleen aldetik bilera eta batzorde horietan hobekuntza eta proposamenak jasoz.

Ikus: *Aktak; EKKS; Plan estrategikoa AMIAk; Inkestak;*

7. Jasangarritasunaren oinarrizko kontzeptuak erakundean barneratuta ditugu, gure Xedea, Ikusmira eta Baloreak errebisatzerakoan, curricula diseinatzerakoan eta Zentroko Urteko Plana egiterakoan, txertatuta daude. 2017-2021erako gure plan estrategikoaren eremuetako helburuetan, "Pedagogia", "Pertsona ardatz" eta "Azpiegituretan" ataletan, adibidez.

Ikus: 2017-2021 *Plan estrategikoa; 2019-2020 helburuak; Webgunea; ZUP;*

1.3 Balioak argitzea	8.- Hezkuntza Proiektuan edota beste dokumentuetan zehatz aipatzen dira balio hauek: bidezko gizartea, ingurumen osasuntsua eta herritartasun aktiboa.	8
	9.- Tutoretza planean tokia egiten zaio EA21eko gaiari, ikasleen izaera eta balioei, Giza Eskubideei eta gure gizarteko aurreiritzi eta estereotipoari.	8
	10.- Errespetua da balio nabarmenetako bat ikasketxearen helburuetan: errespetua pertsonari bereziki, eta oro har izaki bizidunari.	9
	11.- Landu egiten da, bai egunerokotasunean zein asanbladetan, gatazketan eta abarretan, ikasleak beren kasa pentsatzeko gai izan daitezela, arazoaren gaineko informazio, iritzi eta ikuspuntuez kritiko izan daitezela.	9
	12.- Ingurumena babesteko kontsumo eta bizimodu pertsonaleko ohiturak aldatzeko borondate ona baloratzen da.	9

Ebidentziak:

8. Gure hezkuntza proiektuan agertzen dira balio hauek. Xede eta helburuen atalean eta Hezkuntza ereduaren atalean. Horrez gain, 2017-2021erako gure plan estrategikoan ere azaltzen da.

Ikus: *Hezkuntza proiektua; 2017-2020 plan estrategikoa;*

9. EA 21eko gaiak tutoretza planean txertatuta daude. Pertsona ardatz kontzeptutik abiatuta, zuzenki loturiko gaiak lantzen ditugu. Gure 2017-2021 plan estrategikoko pedagogia atalean planaren hausnarketa helburutzat jarri dugu.

Ikus: *Tutoretza plana; Plan estrategikoa;*

10. Gure plan estrategikoan helburuetako bat (pertsona ardatz atalean) da eta KIVA proiektuaren bitartez lantzen da, besteak beste. Giza eskubideekin loturiko hainbat proiektu (Matia fundazioa) eta lehiaketa burutzen ditugu. (Giza eskubideen marrazki lehiaketa, Boligrafo bilketa, janari bilketa, tapoi bilketa ...)

Ikus: *Hezkuntza proiektua; KIVA; Webgunea; Bizikidetzaren plana;*

11. Gure ikasleen protagonismoa eta autonomia bultzatzeko ingurumen arloko eztabaidak (bai IBn eta klase orduetan) sustatzen ditugu. Hau uztartzeko ekintza ugari antolatzen ditugu: Gazteen Lege Biltzarra proiektua, Elikagai bankurako janari bilketa, mugikorren bilketa, Txoko berdea, ...

Gazteen Lege Biltzarrak ikastolako ikasle eta ikasle ohiak ordezkatzeko dituen organo gorena izan nahi du. Bertan, gazteen partaidetza sustatu eta bideratu nahi dugu beraien eskubideak eta interesak defendatzeko.

Ikastolako IKAS-KOOP eremuan, garapen iraunkorrerako helburuei erantzuten jarraitzeko ditugun proiektuetara gehituko zaigu Axular Lizeoko Gazte Legebiltzarra.

Ikus: *Webgunea; EKKS;*

12. Ingurumena babesteko jarrerak eta ohitura onak modu onean baloratzen dira. Gure Ekolo pertsonaiak egiten dituen bisitekin eta fruituen banaketarekin adibidez. Gelako landareen banaketarekin ere.

Ikus: *Multimedia; Webguneko albisteak;*

1.4 Eskolako giroa	13.- Eskolaz kanpoko ingurumen kanpainekin harremana du ikastetxeak: kohesio eta aldaketa soziala bilatzen dutenak, erakunde eta GKEek bultzatuak (UNESCO, Intermon-Oxfam, Greenpeace, Ekologistak Martxan...).	9
	14.- Ikastetxeko ingurumen konpromisoak elkarbizitza planean eta ikastetxeko barne arautegian (AJA) batzen dira eta harrera protokoloan ezagutarazten dira.	8
	15.- Ikastetxeko giroa zaindu egiten dela erakusten duten estrategia, intentzioa edo ekintzak egon badaude.	9
	16.- Estamentu desberdinek ikastetxeaz duten satisfazio maila (ikastetxea toki atsegina eta zirrargarria dela) eta ikastetxearen ingurumen jarduerak neurtu egiten da aldiro.	9
	17.- Jasangarritasuneko hezkuntzarekiko konpromisoa idatzita dago: zuzendaria sinatuta, edo arau edo dekalogo batean jasota, ikasleen adinera egokituta. Eta idatzi hori jakina eta publikoa da, eta nabari egiten da ikasgeletan eta ikastetxeko gainerako geletan, baita kanpoaldean, kudeaketan eta antolaturiko jardueretan ere.	8

Ebidentziak:

13. Kohesio eta aldaketa soziala bilatzen duten GKEekin elkarlanean gabiltza. Ingurumen kanpainekin loturiko Surfrider erakundea, adibide garbia da. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleekin burututako kanpaina bat. Beste erakunde batzuk: Emaús, Gipuzkoako Elikagai Bankua (elikagai bilketa), Alboan (mugikor bilketa), Fremap/ Fundación Almar (tapoi bilketa), Apoyo Dravet fundazioa, Pausoka elkarte, Sant Joan de Deu (pulseras candela), ONCE, Matia Fundazioa, ... adibidez.

Ikus: *Webgunea; Fakturak; EKKS; Multimedia;*

14. Ingurumen konpromisoak ikastolako Elkarbizitza eta Hezkidetzaren planetako dokumentuan ageri dira. Edozein irakaslek editatu eta alda dezake. Ingurumen konpromisoak barne araudian agertzen dira.

Ikus: *Elkarbizitza plana; Drive; EKKS; Barne araudia;*

15. Ikastolako giroa hobetzeko eta mantentzeko intentzioa dago eta ekintza ugari egiten dira. Adibidez: Ekolo mozorroa, Ekolo gometsak (uraren kontsumoan, argiaren erabileran eta zaborren kudeaketan arduratsuak izan behar gara gogorarazten digu), Ingurumen Nazioarteko Eguneko ospakizunen finkatzea, konpromezu dekalogoak gelaka, txoko berdeak, landareak ikasgeletan, baratzeak ...

Ikus: *Ekolo proiektua; Multimedia; Webgunea; Baratzearen portfolioa;*

16. Familiei, langileei zein ikasleei inkestak bitartez zein batzorde eta bilera ezberdinen bitartez, duten jardueren satisfazio maila neurtzen zaie. Hau da, adierazle batera. Horrez gain, Urtero ekintza planeko jarduerak kopuruen neurketak egiten dira. Zuzendaritzarekin hiru- hilero familiek gosaltzeko aukera izaten dute. Ekintza honen helburua gai ezberdinen inguruan hauen proposamen, zalantza eta bestelakoak modu informalean jasotzea da.

Ikus: *Webgunea; Inkestak; Ekintza plana;*

17. Ikasleen adinera egokitutako jasangarritasuneko hezkuntzarekiko konpromisoa idatzia dago, Zuzendariak eta Donostiako alkateak sinatua. Horretan ingurumen arautegia jaso dago eta ikastolako txoko berdean zintzilikatuta dago. Txoko berdea astero hornitzen dugu, tokatzen zaion gelaren arabera.

Ikus: *Txoko berdea; Txoko berdea egutegia;*

2- Konplexutasuna

Konplexutasuna oinarrizko kontzeptua da jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzan.

E. Morin-ek eraiki zuen konplexutasunaren paradigma, aurre egiteko planteamendu sinplistei, ikuspegi murriztaileei eta egia absolutuei. Batasuna eta aniztasuna bateratzen dituen ikuspegia da konplexutasuna. Ikuspegi integratzailea da, antolakuntzaren premia du ondorio, harremani arreta eskaintzen die, dimentsio anitzekoa da, irekia, zalantzak onartzen ditu, eta zientzia desberdinen, baita filosofiaren eta zientzia politikoaren mugen ikusmiran kokatzen da.

Idea nagusia zera da, mundu konplexua dugu, eta ingurumen arazo konplexuak, eta pentsamendu konplexua behar dugu sinplekeria (erredukzionismoa, sinplifikazioak, kausa-eragin linealak) gainditzeko. Konponbide sinpleek zerbait konpon dezakete, baina ez osotasuna. Konponbide global eta integralak aurkitu behar dira, sistemaren harreman eta elementu guztiak barne hartuko dituztenak.

Dominoko pieza mordoia zutik: horrelakoxea da mundua. Pieza bakoitza Biosferako parte bat da, planetaren atal biziaren zati bat. Pieza bat eroriz gero, beste asko ere behera doaz. Elementu bati zerbait geratuz gero, norabide eta une desberdinetan ditu ondorioak horrek: lehenbizi hurbileneakoak erortzen dira, gero urrunagokoak. Konponbideak proposatzerakoan, pieza bat ondo jarri nahi dugunean, kontuan hartu behar dugu horrek eragin baikor edo/eta ezkorak izan ditzakeela inguruan daudenentzat.

Konplexutasunaren kultura eraikitzeke protagonismo handia behar luke izan hezkuntzak. Zenbait aukera jadanik lantzen dira ikastetxeetan:

A) Ikuspegi sistemikoa: Elkareragin hauei arreta eskaini: izaki bizidunen artekoak, bizidun eta natura-gertaeren artekoak, gizakiek eragindako gertaerekiko. Eragin eta harreman horiek gertatzen diren guene eta sasoiei kasu egin, ikusmira historikoa izan, ondorio lokal eta globalak kontuan hartu.

B) Etorkizuneko ikuspegia: Dibertsitate eta mugei arreta eskainiz, etorkizunerako aukerak pizten zaizkigu, sormen eta irudimenaren bidez elkartasunezko etorkizun-eszenarioak eraikiz. Uneoro hasten da etorkizuna, orain egiten dugunaren baitan eraikitzen da.

C) Mugez eta zalantzez kontzientzia: Planeta eta natura-baliabideak ez dira agortezinak, ziklo biologikoen denbora behar dute, sistema konplexu natural zein sozialen garapena ezin da aurrez jakin, arriskuak...

Arazoak poliedrikoak izan ohi dira, alde eta ertz askotarikoak. Noren larruan jartzen garen, desberdin ikusiko ditugu: administrazioa, enpresa, familia elkarteak, ekonomia, erretiratuak, teknologia, irakasleak, politika, haurtzaroa...

Ez da horrenbeste ikuspegi guztiak aztertzea, baizik eta ikasleak jakitun bihurtzea, konplexutasuna existitzen dela, eta horrek behartzen gaituela, ingurumen arazoak aztertzean, arazoen ondorio anitzak (ekologiko, sozial, kultural, ekonomikoak, etab.) kontuan hartzea. Konponbide eta alternatibak proposatzean ere, interes eta ikuspuntu anitzak hartu behar dira kontuan, eta proposamenak elkarrizketan negoziatzeko prest egon.

Jasangarritasunaren ingurukoak gai eztabaidatu eta zailak dira, horregatik landu behar dira desadostasunak, konplexutasuna eta interesen desberdintasuna.

Konplexutasuna lantzeak dakar konpetentzia zientifikoak eta humanistikoa lantzea, ikasten ikastea, informazioa tratatzen jakitea, pertsonaren ekimen eta autonomia propioa garatzea ere. Baina, ororen gainetik, herritar-konpetentziak lantzea. Euskal curriculumak dioen bezala, konpetentzia horri esker uler dezakegu gizartearen errealitatea, herritartasun demokratikoa sentitu, elkarlanean eta elkarbizitzan, gizarte anitz batean aritu, haren hobekuntzan konpromisoa hartuz. Konpetentzia honen barruan trebetasun eta ezagutza konplexuak sartzen dira, eta horiekin ahalbideratzen dute parte hartzea, erabakiak hartzea, portaerak hautatzea eta hautu pertsonalen ardura hartzea.

Konplexutasuna lantzeko estrategia egokiak, eta ebidentzia balekoak, honako hauek dira: eztabaidak, simulazio jokoak (ingurumen arazo bateko interes desberdinak antzeztu), dilemak aurkeztu (bi aukeren artean hautatu, argudioekin), adostasuna bilatu, hedabideetako albisteak landu eta kontrastatu.

Jasangarritasunera bidean dagoen ikastetxeak jarrera irekia du; proposamenak jaso egiten ditu, horretarako protokoloa edo erregistroa du, askatasun; konfiantza eta segurtasuna eskaintzen du ekarpenetarako; proposamenak errazten ditu; eskolaren eta eskolaz kanpokoan artean elkartasuna sustatzen du.

2.- Konplexutasuna		
	<i>Kalitate irizpideak</i>	<i>Balioa</i>
2.1 Konplexutasun- aren kultura	18.- Ikuspegi desberdinetatik lantzen dira ingurumen arazoak, gure garapen ereduko ekoizpen eta kontsumo joeren inguruko interes anitzak sorturikoak.	8
	19.- Ingurumenaz dakiguna, horren eraikuntza soziala, ez dago oinarrituta egia absolutuetan, baizik eta zalantzan, kritikan, zorian, ziurgabetasunean ...	8
	20.- Inguruko giza-aniztasuna (ideiak, kulturak, erlijioak) eta biodibertsitatea (ekosistemak, espezieak...) aberasgarritzat jotzen ditugu.	8
	21.- Ingurumen arazoetako elementuen elkarreraginak kontuan hartzen dira: ekonomia, ekosistemak, gizartea...	8
	22.- Ikusmira lokal eta globala lantzen dira, hau da, norberaren inguruan bizi eta ikasitakoa, eta hartutako ingurumen erabakiak, kontrastatu egiten dugu beste toki eta garai batzuetan gertaturikoarekin.	8

Ebidentziak:

18. Arazo bakoitzetik ikuspegi ezberdinak erakusten saiatzen gara. Modu horretan ikasleek irizpide kritikoa garatu dezaten. Honekin loturiko ekintza, hitzaldi interesgarriak antolatu ditugu: Surfrider, Hondar 2050 proiektzioa, BM, ...

Ikus: *EKKS; Webguneko albisteak;*

19. Ingurumenaz dakiguna ez dago oinarrituta egia absolutuan, ikerketa egitea, informazioa jasotzea eta gure irizpide kritikoa garatzea ezinbestekoa da. Horregatik, oso garrantzitsua ikusten dugu antolatzen ditugun ekintzen arteko lotura ingurumenaz dakigun egiara gerturatzeko.

20. Antolatzen ditugun ekintzen hein handi bat gure gertuko inguruarekin loturikoak dira. CEIDA eta Arazitik jasotzen ditugun materialak gure eskualdea ikertzeko baitira. Gure inguru ikertzeko beste hainbat jarduera eta materialak erabiltzen ditugu: ARGIAko Xapoketan karta-jolasa; Flysch irteera; Baratzea eta haren ekosistemaren lanketa; Surfrider eta Aquariumekin egindako hondartza garbiketak ...

Gure heziketa proiektuan txertatuta daukagu giza- aniztasunaren eta biodibertsitatearen errespetua.

Ikus: *Webgunea; Baratzeko portfolioa; Heziketa proiektua;*

21. Ingurumen arazoetako elementuen elkarreraginak landu egiten dira ekintzen alde aurreko sentsibilizazio saioen bitartez. Aquariumek eskaintako saioa, Surfrider erakundeko hitzaldiak ...

Ikus: *Webgunea; EKKS; Multimedia;*

22. Urteroko sentsibilizazio saioak egiten ditugunean, gaur egungo egoerak beste tokitako egoerekin konparatzen ditugu. Izan dugun bilakaera eta ondorioak ulertzeko. Adibidez, gure aztarna ekologikoaren kalkuluarekin eta beste herrialdeenarekin konparatzerakoan.

Ikus: *EKKS; Memoria;*

2.2 Etorkizuneko ikuspegia	23.- Ingurumen arazoak tratatzean kontuan hartzen dira ikusmira historikoa, giza-jarduerak eragindako oraingo egoera eta etorkizunerako eszenarioak.	8
	24.- Ingurumen arazoek gizakiengan eragindako ondorioak aztertzen dira, bereziki haurren (pobrezia, osasuna, heziketa...)	8
	25.- Ingurumen arazoak aztertzean ingurune soziala ere kontuan hartzen da, eta aurre egiteko orduan elkartasuna eta irudimena lantzen ditugu.	9

Ebidentziak:

23. Gure situazioa ulertu ahal izateko beste garaiko eta tokiko situazioekin konparatzea garrantzitsua da. Modu horretan bilakaerak, izandako aldaketa aztertu eta ulertu daitezke. Horregatik, urteroko sensibilizazio saioak egiten ditugunean, gaur egungo egoerak beste garaiko egoerekin konparatzen dugu. Izan dugun bilakaera eta ondorioak ulertzeko.

Overclock taldearekin (FLL) proiektu bat eratzen hasi gara eta martxan dugu dagoeneko. Bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleek "Etorkizuneko hirien " gaia ardatz edukita, situazioa sortzen saiatzen dira. Adibidez, lorategi bertikalak eraiki ditugu eta ikastola barnean erabiltzeko konpostagailu batekin lanean hasi gara.

Energia berriztazaileak gure ikastolan txertatu nahian, bere garaian plaka fotovoltaikoak jarri genituen eta momentu honetan Goiener Kooperatibarekin aurkeztutako proposamenak aztertzen ari gara. Hurrengo denboran, teilatuan hauetako plaka gehiago jarri eta inguruko hiritar eta auzokideentzat energia gehiago sortzeko aztertzen ari gara.

Ikus: *Memoria; EKKS; Overclock; Goiener txostena;*

24. Pobrezia, osasuna haurrengan duten eragina landu egiten da. Horrelako kanpainak antolatzen ditugu:

Gipuzkoako Elikagai Bankuarekin elkarlanean janari bilketa burutzen dugu. DBH 4ko ikasleek bolondres eramaten dute aurrera.

Alboan erakundearekin mugikor bilketa burutzen dute bolondres DBH 3ko ikasleek. Kongoko Errepublika Demokratikoa gerran dago eta umeak esklabotza-baldintzatan. Lortutako etekinak beraiei bideratuta doaz.

Aquariumekin *Txikiziklo* ekintza burutu dugu aurten Lehen hezkuntzako ikasleekin. Bertan plastikoen itsasoan sortzen ari diren kaltea aztertzeaz gain, guregan izan dezaketen eragina ikusi eta ikasi zuten.

Plastikoarekin eskulan lehiaketa antolatu zuten, plastikoaren berrerabilpenaz hausnartzeko.

Horrekin batera, historikoki dugun arazo bati erantzun nahian Iberdrolarekin negoziaketa irekia dugu.

Honen helburua, ikastolako jolas zelaian ditugun tentsio altuko kableak kentzeko proiektua ere aurkeztu dugu.

Ikus: *Webguneko albisteak; Iberdrolako txostena;*

25. Ingurune soziala kontuan hartzen dugu elkartasuna eta irudimena landuz. Emaus Fundazioak antolatutako "Homeless film festival" proiektuan parte hartu zuten DBH 4. mailako ikasleek. Bisita batzuk egin eta gero, ikasleek metraje laburreko film bat egin behar zuten zinemaldian aurkezteko.

Ikus: *Webguneko albisteak;*

2.3 Alternatibak proposatu.	26.- Alternatibak aurkezterakoan jokoan dauden interes sozial eta ekonomikoak kontuan hartzen dira, eta arrazoi kultural eta politikoak ere bai	8
	27.- Eskolako komunitateko partaideen proposamenak batu eta adosteko protokolo edo metodo sistematiko bat badago.	9
	28.- Herritar kompetentzia lantzen da, eta parte-hartzearen teknikak eta jarrera afektiboa (entzutea, errespetua, keinuak...)	8
	29.- Agente guztien beharrak kontuan hartzen dira, eta haiek askatasunez eta	9

	konfiantzan egin ditzakete ekarpenak.	
	30.- Ikasleen ekarpen eta alternatibek aldatu egin dute edo aldatzen dute ikastetxearen antolakuntza eta funtzionamendua, eta horietan gero eta parte-hartze eta elkarlan handiagoa dago.	9

Ebidentziak:

26. Arazoetan ez ezik, irtenbideetan eta arlo sozialak, kulturalak, ekonomikoak, politikoak etab. hartzen dira. Adibide garbiak dira, Emaus eta Kontsumobiderekin egin ditugun ekintzak, non gure jokabideak izan ditzaketen ondorioak eta erantzunak ikusi ahal izan ditugu.

Ikus: *Webgunea;*

27. Gazte legebiltzarraren bitartez ikastolako komunitateko partaideen proposamenak batzen ditugu eta adosteko metodo sistematiko bat dago.

Ikus: *Webgunea; Gazte legebiltzarreko txostena;*

28. Herritar konpetentzia eta parte hartzea edozein esparru eta eremutan lantzen dugu, heziketa proiektuan txertatuta doa. Jarrera afektiboari dagokionez gauza bera, KIVA proiektuarekin, *Mindfulness* proiektuekin erabat loturik doa.

Ikus: *KIVA; Mindfulness; Heziketa proiektua;*

29. Agente edo estamentu guztien ekarpenak, eskaerak aztertu eta erantzuna ematen zaie. IB bilerak, inkestak, zuzendaritzarekin gosariak, Gazteen lege biltzarra proiektua, Kultur taldeko bilerak...

Ikasleak, familiak eta langileak "Ikastolarekin amets egin" ekintzan parte hartu dute.

Ikus: *Webgunea; Aktak; Inkestak; Multimedia;*

30. Ikasleak geroz eta aukera gehiago dituzte ikastolako funtzionamenduan eta antolakuntzan eragin gehiago izateko. Aurten, adibidez, Gazteen lege biltzarra proiektua aurkeztu dugu.

Ikus: *Webgunea;*

3.- Prozesua

Jasangarritasunaren kulturak giro egokia eskatzen du: elkartrukatzeko, eztabaida eta elkarriketarako, ekintza eta parte-hartzerako. Beraz, antolakuntza behar da; egitura eta funtzionamendu jakin bat, gune, denbora, jarraibide eta baliabideak eskainiko dituen programa garatzeko. Ikastetxeen antolakuntza tradizionalak ez du proiektuen garapena oro har lagutzen; are okerrago, sari oztopo handia ere bada. Hainbatetan, antolakuntza zurrun eta "betikoak" gidatzen du ikastetxearen ibilbidea, eta alderantziz behar du, antolakuntzak egokitu errealitate, premia eta proiektu berrietara. Antolakuntzak baliabide dinamikoak izan behar du, ikastetxearen hezkuntza helburuen zerbitzura, eta ez kontrakoa. Jasangarritasuneko hezkuntzan antolakuntza eta prozesuak ikuspegi partekatuak gidatu behar ditu: antolakunde-egitura zurrunak malgutu behar dira, eta prozesuen ezaugarrietara moldatu behar dira.

Ez dago zertan ikastetxearen memoria ahaztu. Urtez urte esperientzien argitan landu eta dokumentaturiko kultura hori oinarri izango da, haren gainean eraikitzeko ekarpen berriak, hausnarketak eta berrikuntzak. Dokumentazio hori izango da halaber komunitate didaktikoari berrikuntzak jakinarazteko oinarria, argitalpenen bidez, eta biltzar eta lehiaketetan parte hartzen.

Zuzendaritza taldeak egitura eta antolakuntzako prozesuak erraztu behar ditu: helburu, prozesu eta ebaluazioaren ulermena partekatu; estamentu guztiak inplikatu, nora joan nahi den adostu. Zentzu horretan, hobeak dira norabide egokian urrats txiki eta gutxi batzuk ematea, ez urrats handiegi eta iragankorrak. Eta aurreko urteetako esperientzia dugu, haien emaitzetatik abiatu behar dugu. Ingurumen hezkuntzako programa garatzeko funtzionamendu egokia ezarri eta antolatu dugunean, irakaskuntza-ikasketa prozesuan murgilduko gara, eta horren barruan, metodologia, ebaluazio eta emaitzetan kontzentratuko gara.

Jasangarritasunak herritar aktiboak eskatzen ditu, sortzaile eta kritikoak, ingurumen arazoan aurrean gaitasunez jantziak; gai direnak bateratzeko kontzeptu eta ekintzen gaineko jakintzak, prozedurak, jarrerak eta baliokak; kausa eta efektuetan pentsatzeko gai, konponbide berritzaile eta sortzaileak proposatu eta bideratzeko gai.

Honek eskatzen du ikasketa prozesuaren erdigunean ikaslea jartzea, (eta ez edukiak, ezta irakasleak ere).

Ikasleari behar duen testuingurua eman behar zaio bere kompetentzia, ideia, balio eta itxaropen propioak garatzeko. Ikaslea protagonista bihurtzeko eskatzen du bere ezagutza propioen eraikuntzan subjektu aktiboa dela ulertzea.

Eskolako Agenda 21 mende honetako hezkuntzaren erronka handiekin uztartuta dago: gizartea eraberritzeko hezkuntza, heziketa kritiko-demokratikoa, jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza, aniztasunerako, gizarterako (osasuna, generoa, kultura...), parte-hartze aktiborako, ikasketa komunitateetarako... Programak honako kompetentzien garapena errazten du: ekintzarako gaitasuna, kausa eta efektuen ulermena, konplexutasuna, testuinguruarekiko arreta, azterketa etikoak, ikuspegi sistemikoak, ezagutzaren eraikuntza. Gainera, planetaren parte garena sentitzea, emantzipazioa, benetako parte-hartzea, egoera eta material egiazkoak, ekintza funtsezkoa eta funtzionala eskaintzen ditu.

Prozesuaren ebaluazioa barne-hobekuntzako mekanismo gisa ulertu beharra dago. Horregatik, helburua argi azaldu behar da, estamentuen artean demokratikoki adostu, eta kontuan hartu faseak, ardatzak eta azken emaitzak. Eskolako Agenda 21 programak helburuen betetze-mailarako adierazleak proposatzen ditu. Hasieran ez dira errazak erabiltzeko, kontu berri samarra baina ikastetxeetan, baina denborarekin haren inguruko balioak agerikoak bihurtzen dira.

Gogora dezagun helburu nagusia ez dela horrenbeste emaitza, baizik eta ikaskuntza eta ikasleen gaitasunen garapena. Ondorioz, emaitzarik agerikoenak, seguruenik, kudeaketan gertatuko dira. Hor neurtu behar ditugu esperientziak eta ekarpenak, alor hauetan adibidez: bidezko merkataritza, jasangarritasuna kontuan duten erosketak, biodibertsitatearekiko arreta, garraio jasangarrira, osasuna. Emaitzak onak edo ez hain onak izan daitezke, baina ez dugu etsipena eragin behar ikasleengan, eta aldaketak balioztatu behar ditugu, ahalegina, norberak edo taldeak ikasitakoa... Sarritan, emaitza onak lortzea baino zailagoa da aurreko ikasturteetako eustea, eta hori hausnarketarako abiapuntu izan daiteke ikasleen artean, eta eskola osoan ere bai.

Emaitza ona da Eskolako Agenda 21 proiektuak urtean buruan ikastetxean lortzen duen finkapena.

3.- Prozesua		
	Kalitate irizpideak	Balioa
3.1 Antolakuntza	31.- Proiektua garatzeko azpiegitura ezarri du ikastetxeak, eta horrek hartzen ditu Ingurumen Batzordea eta beste azpitalde batzuk, eta hauek osatzen duten sarearen bidez hezkuntza komunitate osoak du aukera parte hartzeko eta komunikatzeko Eskolako Agenda 21aren baitan.	10
	32.- Zuzendaritzak konpromisoa du Eskolako Agenda 21ekin, Ingurumen Batzordean parte hartzen du, haren kudeaketa bermatu, baliabideak, tokia eta denbora bermatu, eta bere gain hartzen du zabalkundea administrazioen eta hezkuntza komunitatearen aurrean.	9
	33.- Ikastetxearen antolakuntzak bermatzen du toki eta denbora bermatuta izango dutela honako jarduerak: irakaskuntza, ikasleenganako eta familienganako arreta, Eskolako Agenda 21 proiektuaren eta irakasleen arteko koordinazioa.	9
	34.- Proiektuaren dokumentazioa ondo antolatuta dago, eta eskura du hezkuntza komunitateko edozein partaidek.	10

Ebidentziak:

31. EA21eko proiektua aurrera eramateko, lantzeko eta garatzeko ikastolak azpiegiturak ezarri ditu. Ingurumen batzordea (9 familia, 18 ikasle, 5 irakasle, langile ez dozente 1 eta zuzendaria), talde sustatzailea ... Hezkuntza komunitate osoari ematen zaio parte hartzeko aukera.

Ikus: Webgunea; IBko aktak;

32. Zuzendaritzak batzordean parte hartzen du eta EA21eko koordinatzailea periodikoki zuzendaritza bileratan egoten da.

Ikus: Zuzendaritza bilera aktak;

33. Ikastola barneko koordinazioa bilera hauetan burutzen dugu: Ziklo, etapa bilerak, klaustroak ...

Ikus: Aktak;

34. Proiektuko dokumentu guztiak webgunean zein EKKS plataforman eskuragarri daude.

Ikus: Webgunea; EKKS;

3.2 Metodologia.	35.- Eskolako Agenda 21 egitasmoaren helburuak argiak eta zehatzak dira, eta ikasle, irakasle eta hezkuntza komunitateko beste partaideek ezagutzen dituzte.	9
	36.- Eskolako Agenda 21en fase eta metodologia ondo berezita eta garatuta daude, eta haien arteko komunikazioan ahalegina egin da.	9
	37.- Ekintza Planaren jarduerak pedagogikoak dira, ez daude soilik ingurumen arazoak konpontzera zuzenduta eta kontuan hartzen dituzte, izatea, ezagutza, egiten jakitea eta balioak.	8
	38.- Eskolako Agenda 21 testuinguru desberdinetan agertzen da: ikasgeletako programazioan, ikasgai edo alor desberdinetan, Hezkuntza Proiektuan.	8
	39.- Eskolako Agenda 21ek sustatzen dituen balio etikoak kontuan hartzen dira: berdintasuna, justizia, erantzukizun pertsonal eta kolektiboa.	8
	40.- Eskolako Agenda 21 programaren Ekintza Planean desberdindu egiten dira 3 ardatzak (curriculum, parte-hartzea, kudeaketa jasangarria) eta ekintzen izaera (zer, zertarako, nola, noiz).	10

Ebidentziak:

35. Egitasmoaren helburuak argiak, zehatzak eta ezagunak dira. Gure ikastolako ZUPean daude eta Webgunean proiektuen menuko EA21eko atalean aurki ditzakegu.

Ikus: Webgunea;

36. EA 21eko fase eta metodologiak ondo antolatuta daude eta komunikazioa zuzena eta garbia da.

Ikus: *Ziklo bilera aktak; Klaustro aktak; IB aktak;*

37. Ekintza planeko jarduerak pedagogikoak dira. Ingurumen arazoa osotasunean lantzeko prestaturik daude. 3 ardatzetan sailkatzen ditugu jarduerak: Partaidetzan, kudeaketan eta curriculumean.

Ikus: *Ekintza plana;*

38. EA21 ikastolako testuinguru anitzetan azaltzen da. Ikasgai eta alor ugaritan, hezkuntza proiektuan ...

Ikus: *Ekintza plana; Hezkuntza proiektua;*

39. Berdintasuna, justizia, erantzukizun pertsonala eta kolektiboa sustatzen dituen hainbat proiektu garatzen ditugu: EA 21, KIVA ... Horrez gain, gure ikastolako xede, ikusmira eta helburuetan txertatuta dago.

Ikus: *Webgunea; EKKS; Hezkuntza proiektua; Heziketa modeloa;*

40. Ikastolako urteroko ekintza planean ondo berezita eta antolatuta dago. Ekintzak egitearen arrazoiak eta balorazioak ere bertan ikus daitezke.

Ikus: *Ekintza plana;*

3.3 Ebaluaketa.	41.- EA21en helburu edo jomuga, zertarako ebaluatzen den alegia, argi azaltzen da proiektuan.	10
	42.- Ebaluaketarako adierazleak helburuekin batera ezartzen dira, eta aldaketa eta hobekuntzak neurtu eta baloratzeko erabiltzen dira.	9
	43.- Agente guztiek hartzen dute parte ebaluaketan, eta horrek hartzen ditu, ikasleen ikasketa, irakasleen jarduera, zuzendaritza funtzioak, eta ikastetxeak Eskolako Agenda 21en baitan duen funtzionamendua.	9
	44.- Ebaluatzeko orduan kontuan hartzen dira, Eskolako Agenda 21eko diagnostiko, prozesu eta emaitzak, eta baita ikastetxearen parte-hartze demokratikoa ere.	9
	45.- Proiektuaren helburuak ezartzean, jarraipena egiten da aurreko ikasturteetako konpromiso eta adierazleak emaitzetatik abiatuta.	10

Ebidentziak:

41. EA 21eko helburua argia da, ingurumenaren eta gizartearen hobekuntza. Hori lortzeko abiapuntua ikastolaren eta inguruko faktoreen diagnostikoan dago. Horretarako proiektuko urratsetan eta urteroko gaia baliatuz, ikastolaren diagnosis egiten dugu, gure adierazleak neurtzen ditugu eta helburuak markatzen ditugu. Helburu errealak.

Ikus: *Memoria; EA21 helburuak;*

42. Helburuen hausnarketa eta garapen prozesuan, ebaluaketarako adierazleak kontutan edukitzen ditugu. Helburuak beti adierazle batean oinarrituta egongo dira, neurketa zehatz eta objektiboena egin ahal izateko. Honela, beharrezkoa denean, helburu horren doikuntza egin dezakegularik.

Ikus: *Inkestak; Helburuak;*

43. Ekintzen balorazioa agente guztien artean egiten da. Ekintza hauek baloratzeko batzuetan behaketa bidez egiten dugu, bestetan inkesten, batzorde bileren, ziklo/ etapa bileren bitartez egiten ditugu.

Ikus: *Ekintza plana; Aktak;*

44. Diagnostikoan agertutako emaitzak baliatuz eta batzordean adosten diren erabakiak ardatz izanda, ebaluaketa sakonak egiten dira eta hortik abiatuta hobekuntzak proposatu.

Ikus: EKKS; IBko aktak; EA21 memoria;

45. Proiektuaren helburuak eta ekintzak zehaztean, aurreko ikasturteko diagnosian antzemandako eta ekintza planean markatutako helburuetan oinarritzen gara.

Ikus: EA21 memoria; Aintzatespeneko iradokizunen txostena;

3.4 Emaizak	46.- Ikastetxeak erosketa berdeen plana du, kontsumo jasangarrira praktikatzen du, edo bidezko merkataritza sustatzen du.	8
	47.- Ikastetxeak bere baliabide (ura, papera, energia...) zein hondakinen kudeaketa jasangarrira burutzen du, ikasturteaz ikasturte izandako aldaketak eta lortutako hobekuntzak erregistratu egiten dira eta beraien jarraipena egin egiten da.	10
	48.- Ikastetxeak ekintzak sustatzen ditu alor hauetan: garraio jasangarrira (eskola-bidea, bizikletak, garraio kolektiboa), biodibertsitatea (eskolako baratzea, berdeguneak...), osasuna (dietak, kirola, afektibotasuna), justizia soziala eta aldiro ebaluatzen dira.	10
	49.- Ikastetxeak artikulua, liburu edo txostenen bat argitaratu du azken lau urteetan, edo sari edo aipamen bat jaso izan du.	10

Ebidentziak:

46. Erosketa berdearen plana osatzen hasi gara. Organikoen kudeaketa eramateaz gain, gainontzeko hondakinen kontsumoak kontrolatzen ditugu. Irakasle edo gurasoen guneko kafe makinan plastikozko edalontzien ordez, organikoan birziklatu daitezkeen edalontziekin ordezkatu dira.

Ikus: EKKS;

47. Ikastetxeko kontsumoak eta hondakinen kudeaketa jasangarria burutzen da. Datu guztiak ikastolako estamentu guztien artean lortzen ditugu eta erregistratu egiten ditugu egunez egun jarraipena egin ahal izateko. Gure birziklapen politikaren, hainbat adibide:

- Gela guztietan selekzionarako 3-4 edukiontziak ditugu.
- Horiek eskola kanpoko edukiontzi handietan husten ditugu.
- Ohikoa denez, papera sotoko edukiontzi urdinetan husten dugu. Ostiralero kamioia paper hori biltzera dator.
- Hondakin elektronikoak San Markosera eramaten ditugu.
- Pilak kafe gelan bildu eta auzoko eduki-gailura botatzen ditugu.
- Tonnera eta inprimatzeko kartutxoak KOPYLEKU enpresak eramaten ditu. Enpresa honek, fotokopiagailuen kudeaketa integrala eramaten du eta honekin tonner horiek bigarren bizitza bat izango dutela ziurtatzen dugu.
- CD-ak Datuen segurtasun legeagatik, aldez aurretik tresna elektriko batez ezabatzen ditugu eta gero, Garbigunera eramaten ditugu.
- Materia organikoaren birziklapena egiten dugu. Organikoa asteartero eta ostiralero LHko ikasleek biltzen dute aurten kanpoan jartzea lortu dugun edukiontzian botatzeko. HHko hurrekin asteazkenero biltzen dugu konpostagailura eramateko.

Ikus: EKKS; Bilketa egutegiak; Kontsumoen eta kudeaketaren excel dokumentua;

48. Garraio jasangarria bultzatzeko, osasuna bermatzeko, biodibertsitatea kontuan izateko ... ekintzak antolatzen dira ikasturte osoan zehar.

Auzoan trafiko arazo nabariak ditugu, eta gure 50. Urteurrenean ekintza berezien artean, irailaren 22an Nazioarteko Mugikortasun egunean ekintza bereziak antolatu genituen. Aurten ziklometroko ekintzan parte hartu dugu.

Mugikortasuna eta segurtasuna bermatu nahian, oinezkoentzat eta bizikletaz ikastolara datozen pertsonentzat sarrera hobetzeko proiektua diseinatua dago eta bai udaletxean, baita Foru Aldundian aurkeztua ere. Gainera, GIH (Garapen Iraunkorreko Helburuak) helburuei erantzun nahian, espaloi birziklatua erabiliz aurrera eraman nahi da proiektu hau.

Gure 2017- 2021 plan estrategikoaren helburuetan, azpiegituren sekzioan, bultzada ematen diogu.

Biodibertsitatearen aldetik, Baratze pedagogikoa, landareen zainketa, zuhaitzen landaketa, ekonomia urdina, SEO birdlife (Ekogunea) ... burutzen ditugu.

Osasunaren aldetik, kirolari eta elikadurari emandako garrantzia gure eguneroko menuan ikus daiteke eta gure barneko kirol proiektuan aztertu daiteke. Horrez gain, elikadura osasuntsuarekin loturiko hitzaldia eta irteera antolatuta daukagu BM erakundearekin.

Gizarte justiziarekin loturiko ekintzak askotarikoak dira. Tapoi bilketa Fremapekin, Matia Fundazioarekin boluntario programa, Gipuzkoako elikagai bankurako janari bilketa, errotulagailu eta boligrafo bilketa Dravet fundazioarentzat, telefono solidario bilketa Kongoko hezkuntza proiektua aurrera eramateko ...

Ikus: ZUP; IBko akta; Ekintza plana; 50. Urteurreneko plangintza; Kirol proiektua; GIH espaloi proiektua.

49. Ikastolak azken urteetan hainbat sari irabazi ditu. Horrez gain, 50. urteurrena dela eta, liburu bat argitaratu da. Donostiako Tabakalerako ImpactHub-en "Behin batean Ekonomia Zirkularra" delako proiektuaren barnean "Gunterren alegiak amets egiten jarraitzeko" liburuaren aurkezpena egin zen Axular Lizeoarekin elkarlanean.

Sari aipagarriak: Overclock, Cansat, Bide heziketa lehiaketan, Elkar ipuin eta ilustrazio lehiaketan, Euskaliten XIV. Jardunbide topaketan, Ranking ezberdinetan agerpena ...

Ikus: Webgunea;

4.- Parte-hartzea

Jasangarritasunaren oinarri garrantzitsuenetakoa da parte-hartzea. Eta parte-hartzearen ideia lotuta dago demokraziaren ideiarekin. Helburu eta erantzukizunak partekatzea esan nahi du, taldeari eragiten dioten ekintzetan inplikatu helburuok lortzeko. Ekintza jakin bat, bere horretan, aldaketarako helburu bat da. Nolanahi ere, parte-hartzea ez da berez pertsonen sortzen zaien dohaina, baizik eta zenbait faktoreen arabera garatzen den konpetentzia: norberak landutako trebetasun eta balioak, hezkuntza metodologia, ikastetxeko giroa, tratatu beharreko arazo zehatzaren ezaugarriak...

Ikasleei dagokienez, proposatutako jarduera eta ekintzak oinarritu behar dira beraien aurretiazko esperientzia, ideia eta itxaropenetan, eta baita beraien inguru hurbil eta errealean. Horrek interes, motibazioa eta parte-hartzea erraztuko du, ezaguna eta hurbila baitzaio gaia... gero abstrakzio handiagoetara igarotzeko.

Baina jarduerak egiteak ez gaitu aktibismora eraman behar. Aktibismoak esan nahi du, ikaslea nahikoa motibatuta badago ekintzarako, ekite hutsak aztertutako errealitatearen egiaz jabetzera eramango duela. Noski, hori ez da horrela. Ekintzak zentzua du bakarrik hausnarketaren batera badoa: "lehenago eta geroago" (hasierako eta amaierako faseak) kontuan hartzen badira, aurreko ezagutzei berriak gehitzen bazaizkie (ezagutza eraiki), kausa eta efektuak aztertzen badira (konplexutasuna), prozesuak errepasatzen badira erabilitako trebetasun eta ezagutzak aztertuz (meta-ikasketa), funtzionamenduaz kontzienteki jabetzen bada eta bere jarrera moldatu (auto-erregulazioa), egindakoa komunikatzen bada (irakaskuntza esanguratsua), testuinguru berrietan aplikatu badaiteke (funtzionalitatea). Hori guztia, batere dogmatismorik gabe.

Horrek guztiak erronka hau dakar irakasleentzat: ikasleei protagonismoa eman. Ingurumen hezkuntzan honek esan nahi du gune eta baliabide zehatzak eskaintzea ikastetxeko erabakietan parte hartzeko, ikastetxearen konpromisoetan inplikatzen, ikasleen artean ekarpenak adostu edo eztabaidatzeko (ikasgelan edo talde zehatzetan), ekintza zehatzak burutzeko (lorategi eta jolastokiak zaindu, konpromisoen jarraipena egin, sentsibilizazio edo salaketa kanpainak...), eta abar.

Jasangarritasuneko bidean dagoen ikastetxean, irakasleek ikasketa prozesuaren erdigunean kokatu

dituzte ikasleak. Irakasleak prest daude eztabaida sustatzeko, ikuspuntu desberdinak entzun eta kontuan hartzeko, konponbideak adosteko, ikasleen parte-hartzerako trebetasunak hobetzeko. Halaber, parte-hartzea baloratzen da, positiboki diskriminatu, ekintza proposamenak kudeatu, eta parte-hartzaileak aintzat hartu (agerikoa egin daiteke hori klaustrako akordio bidez, ikasgelako programazioan, edo ikasleek autonomoki garatu eta diseinatutako ekintzen kontaketen bidez). Horrek ez du esan nahi ikasleei proiektuaren alderdi guztietan erabakitzen ahalmena eman behar zaienik. Parte hartzeko aukerak ematean balio handia dago, baina irakasleak dira gidari, proiektuaren kalitatearen arduradun.

Ikasleek ez ezik, eskolako beste estamentuek ere parte hartzea eskatzen du Eskolako Agenda 21ek. Pertsonal ez irakasleak, familieak, eta, jakina, irakasleek, antolakundearen egituraren egon behar dute. Agente desberdinei gune eta baliabideak eskaini behar dizkie egitura horrek, beren parte-hartzea posiblea eta benetakoa izan dadin. Demokraziaren ideala da, azken batean, eraiki nahi duen etorkizuna komunitateak berak planifikatzen eta garatzen duela.

Orain arte ikastetxearen edo zuzendaritza-taldearen ardura soila izan diren alorretara ireki behar da parte-hartzea: kontsumoa, erabilpenak, hondakinen kudeaketa... Ikastetxearen giroa hobetzea, eta bazterketa arriskuan dauden taldeenganako ardura ere bai (azken horien artean, etorkinak, etnia desberdinak, pobreturiko taldeak, osasun arazoak, kultura ezberdinak...).

Bestalde, inguru sozial eta naturalean, mundu errealean, gero eta txertatuago egon behar du eskolak eta horretara jo behar dugu: komunitate lokalaren garapenean gero eta funtsezkoago izan. Alde honetatik, Eskolako Agenda 21ek sustatzen du Eskolen Udako Foroak sortzea, eta horietan ikastetxeetako ingurumen batzordeetan dauden ikasleek udal agintariei aurkeztutako dizkiete egindako lanak, aztertutako ingurumen arazoaren gainean hartutako konpromisoak, eta udalerriko arazok aztertutako sortutako eskaerak.

Hartutako konpromisoen barne-jarraipena prestatu behar du ikastetxeak, eta baita ikasleen eskaeren ondorioz, udalerrian eragindako aldaketan kanpo-jarraipena.

4.- Parte-hartzea		
	Kalitate irizpideak	Balioa
4.1 Ekintzaren ezaugarriak.	50.- Ekintzen erreferentzia dira ikasleek dakitena (aurretiazko ideiak, esperientzia, ezagutzak...) eta gertuko inguruaren errealitatea.	8
	51.- Ikasketa eta analisirako jardueretan denbora hartzen da hausnartzeko interakzioaren konplexutasunaz, eta ingurumenarekiko dugun erantzukizun pertsonal eta kolektiboaz.	8
	52.- Ekintzak askotarikoak dira, ekintzetan beharrezko diren trebetasunak lantzen dira (diseinua, ekitea, ebaluaketa...) eta oro har elkarlana bultzatzen dute, eta baita herritar gisa dugun gaitasuna eta parte-hartzea.	9
	53.- Jardueretan sustatzen ditugu: jakin-mina, arrazoibide logikoa, jarrera dogmatikoekiko kritika inguruneko aldaketak aurreikusi eta aztertzean.	9
	54.- Ikasleek proposaturiko ekintzak kudeatzen dira.	8

Ebidentziak:

50. Ekintza planean gela bakoitzeko irakasleak ikasturterako planifikatuta dutena erregistratzen dute eta, aldi berean, ikasturtean zehar sortzen diren aukera berriak sartzten dituzte. Normalean irakasleek eta koordinatzaileek erabakitakoak dira, curriculumarekin, kudeaketarekin eta partaidetzarekin uztartutakoak.

Ikus: *Ekintza plana;*

51. Ikasketa jardueretan ingurumenarekiko zein interakzioen inguruan hausnarketak, ekintza horien inguruko sentsibilizazio saioen bitartez lantzen dugu: Cristina Eneak antolaturiko Itsaslamiak, Aquariumek eta Coca colak antolaturikoak, Aquariumeko ziklotroko saioak, Surfider ...

Gure tutoretza saioak ezinbesteko tresna bihurtzen zaigu hausnarketa eta interakzioa hauek jorratzeko.

Ikus: *Webgunea; ZUP;*

52. Elkarlana eta parte hartzea bultzatzen duten ekintza ugari burutzen dira. Adibidez: Surfiderekin egindako hondartza garbiketak, Matia fundazioarekin burututako ekintza, baratzearen lanketak, tapoi/ mugikor/ elikagai bilketak ...

Ikus: *Webgunea albisteak; Ekintzak eta irteerak; Multimedia;*

53. Irteerak eta ekintzak aldeztu aurretik gelan lantzen dira, gaia kokatuz eta hausnarketa eginez. Adibidez hondartzetara garbiketa egitera joan baino lehenago gaiak jardun zuten, baita kontsumo geletara urteroko bisita egiterakoan ere, aspektu kritikoa garatzen da.

Ikus: *Webgunea albisteak; Ekintzak eta irteerak; Multimedia;*

54. Ikasturte amaieran ekintza planaren bitartez balorazioak ikus daitezke eta bileretan burututako ekintzen inguruan hausnarketa egiten da. Ikasleek gelan plazaratutako iritziak zabaltzeko. Ingurumen batzordeko ikasleek aukera izaten dute ere ekintzen balorazioa egiteko, iritzia emateko eta proposamenak azaltzeko.

Ikasleen ezagutza, esperientzia eta proposamenak jasotzeko, lau urtero pasatzen dugun asetasun inkestak ditugu ere.

Ikus: *Ekintza plana; Ziklo bilera aktak; IB aktak; Asetasun inkestak;*

4.2 Ikasleen	55.- Ingurumen batzordean gehiengoa osatzen dute ikasleek; eta parte hartu, proposatu eta erabaki egiten dute, modu autonomoan eta adostuan.	9
-------------------------	--	---

ikuspegia eta protagonismoa.	56.- Ikasleek aukera dute parte hartzeko ikastetxeko erabaki prozesuetan eta konpromisoen jarraipenean.	8
	57.- Ekarpinak egin eta eztabaidatzeko guneak eta denborak dituzte ikasleek ikasgeletan, modu sistematikoan.	9
	58.- Ikasleen ordezkariak, edo Eskolako Agenda 21eko boluntario taldeek, gune eta denborak dituzte eskura, beren kasa elkartzeko.	8
	59.- Gertueneko ingurunearen, ikastetxearen inguruaren eta ikasgelaren zaintzaren diseinu eta antolakuntzan parte hartzen dute ikasleek.	8

Ebidentziak:

55. Ingurumen batzordeko %53a LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasleek osatzen dute. LHko 6 ikasle, DBHko 8 ikasle eta Batxilergoko 4 ikasle daude. HHko 2 irakasle, LHko 2 irakasle, zuzendaria, langile ez dozente 1, 9 familia eta EA21eko koordinatzailea.

Ikus: *IBko aktak.*

56. Ikasleek ardura hauetan parte hartzen dute: Foroetan parte hartu, Baratzeko portfolioaren kudeaketan, hondakinen kudeaketan, bidezko merkataritzarako (Dravet) eta GKE ezberdinekin jarduera eta bilketetan, mugikortasun eguna antolatzean, garbiketa patruiletan, komuneko brigadan, txoko berdearen eguneratzean ... Beste boluntario taldeak: Cansat, Overclock, Matia ...

Ikus: *Webgunea; Elkarbizitza proiektua;*

57. Ekarpinak egin eta eztabaidatzeko guneak eta denborak dituzte ikasleek ikasgeletan. Horrez gain, Gazteen lege biltzarra proiektu berriarekin gune eta denbora horiek eskainiko dira.

Ikus: *Proiektuak; Webgunea;*

58. Aurreko puntutan aurkeztutako Axularreko Gazteen Legebiltzarra ekimenaz kanpo, gure ikasleek eremu ezberdinak badituzte ikastolan ideia ezberdinak partekatzeko (Goiko solairuko gune irekia, Lehen Hezkuntzako liburutegi eremuak,...). Horrekin batera, bigarren hezkuntza geletako delegatuek aukera izaten dute beraien artean eta etapa horietako koordinatzailearekin kezka, proposamenak eta bestelakoak partekatzeko.

59. Ikastolako inguruaren eta ikasgelaren zaintzan ikasleek parte hartzen dute. Kanpo garbiketan, baratz lanean, hondakinen kudeaketan, komuneko brigadan ...

Ikus: *EKKS; Multimedia; Elkarbizitza plana;*

4.3 Hezkuntza komunitatea.	60.- Estamentu desberdinek parte hartzen dute Ingurumen Batzordean eta beste azpi-talde batzuetan.	10
	61.- Familien partaidetza bermatzeko prozedura eraginkor bat ezarrita dago, Eskolako Agenda 21en benetan parte hartu dezaten. Zabalkundea egiten da eta familiak animatzen dira Eskolako Agenda 21en sustatzen diren balioen arabera joka dezaten, beren esparru propioan.	10
	62.- Hezkuntza komunitateak adostutako arau edo jardunbide egokiak ezarri dira ikastetxean, eta haien jarraipen eta ebaluaketarako denen parte hartzea errazten eta sustatzen da.	9
	63.- Parte-hartzea sustatzeko orduan, kontuan hartzen dira alderdi praktikoak eta gozamenari dagozkionak.	9
	64.- Bazterketa arriskua bizi duten taldeetako kideen parte-hartzea sustatzen da.	8

Ebidentziak:

60. Estamentu guztiek osatzen dute ingurumen batzordea. LHko 6 ikasle, DBHko 8 ikasle eta Batxilergoko 4 ikasle daude. HHko 2 irakasle, LHko 2 irakasle, zuzendaria, langile ez dozente 1, 9 familia eta EA21eko koordinatzailea.

Ikus: *IBko aktak;*

61. Familien partaidetza oso handia da. Ikastolako funtzionamenduan sekulako laguntza suposatzen du. Aurten 9 familiek hartzen dute parte, pasa den urtetik bikoiztu egin da kopurua. Bertan parte hartzeko gonbidapena Inika plataforma bitartez zabaltzen da. Horrez gain, proiektuko zenbait ekintzetan parte hartzeko guraso bilerak erabili dira ere.

Ikus: *Inika; IB aktak;Guraso bileren aktak;*

62. Arau eta jardunbide egokien jarraipen eta ebaluaketan parte hartzeko modu ugari sustatzen dira. Hezkuntza komunitate osoak parte hartu dezake Ingurumen batzordean, zuzendaritzako gosarrietan, gazteen lege biltzarretan, kirol eta kultur taldeetan, elkarbizitza taldean eta beste zenbait bolondres taldeetan.

Ikus: *Aktak;*

63. Ekolo pertsonaiak duen eragina eta garrantzia: Ekolo mozorroaren bisitak fruta egunetan, Ekoloren irudia energiaren eta uraren erabilpen jasangarria bultzatzeko, Ekoloren irudia birziklapen egokia bultzatzeko ... Ingurumenaren nazioarteko egunaren ospakizunaren finkatzea: Gymkana, ipuin kontaketak, filmen eta dokumentalen proiektzioa. Txoko berdearen horniketeta. Guzti hauek ikasleen zein beste estamentuen parte hartzea bultzatzeko ekintza batzuen adibideak dira.

Ikus: *Multimedia; Portfolioa; Webgunea;*

64. Bazterketa arriskua bizi duten ikasleen parte hartzea, kirol, teknologia eta zeharkako proiektuetan bermatzen dugu. Horrekin batera, urteak dira, gela barrutan erabiltzen den IKKI metodologiak, arlo kooperatiboa bultzatuz.

Bazterketa arriskua bizi duten taldeen parte hartzea ere MATIA fundazioarekin egindako elkarlanaren bitartez bultzatzen dugu.

Honez gain, aurreko item batean azaldu dugun moduan Emausekin egindako ekintzaren bitartez parte hartze hori sustatzen da.

Ikus: *Matia boluntariotza programa; Webgunea; IKKI;*

4.4 Eskolen Udal Foroak	65.- Eskolen Udal Foroan parte hartzen du ikastetxeak, eta baita aurretiazko jardueretan ere (eskolarteko foroak, jardunaldi teknikoak eta abar).	10
	66.- Udalari egindako eskariak eta aurkeztutako konpromisoak jarraitzeko prozedura bat dauka ikastetxeak, udalerrian izandako aldaketa eta hobekuntzak neurtzeko.	9
	67.- Herri edo eskualdeko hedabideak erabiltzen ditu ikastetxeak bere plan, konpromiso eta ekarpenak zabaltzeko: prentsa idatzia, bertako irratia, Internet, telebista.	9

Ebidentziak:

65. LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasleek eskolarteko zein udaleko foroetan urtero parte hartzen dute.

Ikus: *Webgunea; EKKS; Multimedia;*

66. Udalari egindako eskaera horien jarraipena ikasturte berrian udalak ematen duen txostenean finkatzen dugu. Gainera, ikastolako zuzendariak udaletxeko arduradunekin gai ezberdinen inguruan jarraipena egin eta bestelakoak partekatzeko aukera izaten du.

67. Gure barneko komunikabideez gain, beste hainbat idatzizko zein ahozko komunikabideekin harremanetan gaude. Hedabide konbentzionalak: EITB, Diario Vasco, Hirutxuloko Hitza, Berria, Noticias de Gipuzkoa ... Ikastola barnean: webgunea, portfolio edo bloggak, Sargoi, Axular news ...

Ikus: *Webgunea; Portfolioak; Proiektuak;*

5.- Elkarlana

Aurreko puntuekin (konplexutasuna, parte-hartzea) oso lotuta dagoen elementua dugu elkarlana, kooperazioa. Estrategia metodologikoa da, pertsona talde batek helburu partekatuak lortzeko zeregin batzuk proposatu eta burutzeko. Talde horri zein ezaugarri edo zio eskaini, termino desberdinak erabili ahal izango ditugu: talde-lana, auzolana, kooperazioa... Elkarlanaren ondorioz, heziketan interakzio aberasgarriak gertatzen dira: garapen psikologiko-afektiboa eta sozio kulturala sustatzen da, berdinen arteko ikasketa, sozializazioa, autonomia eta onarpena, aurrerakuntzarako itxaropena, errebisio eta doiketarako aukerak, eta, jakina, motibazioa.

Eskolako Agenda 21ek berdinen arteko elkarlana errazten du hezkuntza komunitateko estamentu bakoitzaren barruan, eta ez-berdinen artekoa ere bai, estamentu desberdinetakoak elkartzen direnean taldeetan. Berdinen arteko taldeetan, kontuan hartu daiteke homogeneousotasun eta heterogeneotasuna ikasketa maila, estilo eta erritmoan. Batetik, pertsona nagusiek ikasleen ekarpenei arreta eta denbora eskaintzen dietenean, ikasleek konfiantza soziala eta auto-estimazioa garatzen dute. Bestetik, egoera hauetan elkartasuna lantzen da naturalki, eta hori, egoki landuz gero, ingurumen arazoan konponbideen parte bihurtu daiteke.

Tradizionalki, ikasgela barruko talde-lana baztertuta egon da zenbait jakintza-arloak edo irakasgaiak. Baina honela lan egiteak duen balioa beste guztietara zabaltzea garrantzitsua da.

Ikasturteak aurrera doazela, zenbait talde sendotzen direla igarriko da, beren jardunbide programarekin konprometituta, haien garapena sendo bideratzen. Horregatik, ikastetxeko proiektuen finkapenerako, koordinazio eraginkorra ez ezik, proiektuen artean helburu, eduki eta metodologiak partekatzea ere da beharrezkoa, hauen arteko integrazio naturala gerta dadin.

Inguru sozial eta naturaletik, errealitatetik, gero eta gertuago daude ikastetxeak, komunitate lokalaren garapenean gero eta funtsezkoagoak dira. Hasieran, ingurura hurbiltzen gara landa-lana egiten dugulako bertan, edo ikasketa egoera errealean burutu nahi dugulako. Baina, jarraian, udalerriaren garapenean parte hartuko du ikastetxeak, jasangarritasuna ardatz izanda. Hirugarren urrats gisa, finean, ikastetxea ikerketa-zentro bihurtuko da, komunitate lokalaren jasangarritasun prozesuak eta ekintzak zuzentzera igaroko da. Urratsez urrats, ikasle eta irakasleek ezagutza eta ikuspegia eskuratzen doaz, eta ikasleak herritar aktibo gisa trebatzen dira.

Ikastetxeak prozesu horretan parte hartzen du, mugetatik irteten, beste errealitate batzuekin bat egiten. Kasu batzuetan, ikastetxeak sare desberdinetan parte hartuko du: herritarrenak, erakundeenak, eta, bereziki, ikastetxeen lan-sareak. Beste batzuetan, helburu desberdinak dituzten lan-taldeetan parte hartzen dute irakasleek: curriculumean sakondu, metodologia, teknologia... Herri batzuetan plan edo programa jakin batekin bat egiten du ikastetxeak, eta jarduerak prestatzen dira, ekintza komunak garatu, ikastetxe eta udalerriarentzat onuragarri direnak. Honela, eskolarteko foroetan parte hartzen dute udalerrri batean Eskolako Agenda 21 garatzen duten ikastetxeek, eta han iritziak partekatu eta akordioak adostu ondoren, ekarpen horiek eramango dituzte Eskoletako Udal Forora. Ikastetxe bakarra dagoen udalerrietan, aurreitazko lan hori barnean egiten da.

Udalerriak gero eta aktiboagoak dira Tokiko Agenda 21eko konpromisoak garatzen, eta ikastetxeen presentzia nabarmentzen den ekintza, foro eta kanpainak antolatzen dituzte. Ikastetxeek motibazioa eskaini behar dute, Eskolako Agenda 21aren udal-esparruan parte-hartzeko, eta ordezkaritza bilatu Tokiko Agenda 21en baitako Herritarren Foroetan, tokiko erakundeekin batera parte hartu eta kolaboratzeko proposaturiko jardueretan. Horretarako, irakasle eta ikasleek ongi ezagutu behar dituzte eskolaren ingurua, udalerrria, ingurumenaren balioa, arazoak, historia eta etorkizunerako planak. Plan horietan alor eta estamentu asko egon daitezke, bertakoenetik globalenera doanak.

Alor hauetan aurkez daitezkeen ebidentziaren muina dira, batetik, ikasle eta irakasleen arteko elkarlanaren kontakizuna (diziplinarteko unitateko didaktikoak edo proiektuak, adibidez) eta, bestetik, familiekin burututako elkarlana.

5.- Elkarlana		
	Kalitate irizpideak	Balioa
5.1 Elkarlana ikastetxean.	68.- Talde-lana, auzolana edo kooperazioa estrategia didaktikoa da alor eta ikasgai guztietan.	8
	69.- Ikasleek aukera dute elkarlanean aritzeko beste batzuekin: pertsonal ez irakaslea, familien estamentuko pertsona nagusiak, beste adin eta ikasgela batzuetako ikasleak.	8
	70.- Ikastetxeko proiektu desberdinen arteko koordinazioa edo integrazioa lortzeko estrategia badago.	9
	71.- Ikasturtez ikasturte sendotutako ikasle, familia edota irakasleen lan-taldeak daude, eta konpromisoa hartua dute Eskolako Agenda 21ekin.	9
	72.- Eskolako Agenda 21eko eginkizunei atseginez ekiten diete irakasleek, eta eraginkorrak dira haien garatzean.	8
	73.- Ikastetxean finkatuta daude jarduera hauek: familiekin elkarlana, lehiaketak, irteerak, jaiak...	10

Ebidentziak:

68. Ikasleak talde lanean edo kooperazioan hezi nahi ditugu. Horrexegatik, ikasgai guztietan metodologia hori bultzatzen saiatzen gara. Egunerokotasunean mahaien banaketetan hori argi ikusi daiteke LHn: Materialaren arduraduna, idazkaria, koordinatzailea eta laguntzailea daude. Astero taldeko papera aldatzen joaten da.

Horrez gain, tailerretako ikaskuntza burutzen dute lehen hezkuntzako lehenengo zikloan. Bi mailetako ikasleak nahastu egiten dira eta lau tailer ezberdinetan banatzen dira: Hizkuntza, esperimendazioa, matematika eta eskulanak. Astean 3 aldiz egiten 2 orduko saioetan.

4. mailako ikasleak 2. Mailara jaisten dira binakako irakurketan laguntzeko eta 3. Mailako ikasleak era simetrikoan burutzen dute beste gelakoekin.

Sexu heziketan Batxiler 1eko eta DBH 4ko ikaskideek elkarkidetzan lantzen dituzte sexuarekin loturiko zenbait gai. Nagusienek gazteei programa klaseetan eta 6 ordutan azaltzen diete, beti ere teknikarien gidaritzapean.

Batxiler 2ko ikasleek learning by teaching proiektuaren baitan batxiler 1eko ikasleei klase bat eman zieten.

Ikus: *Webgunea albisteak; Multimedia; Elkarbizitza plana;*

69. Ikasleek elkarlanean aritzeko aukera ugari dituzte. Beste mailetako ikasleekin, familiekin, irakasleak ez direnekin ... Goraipatu dezakegu batxilergoko ikasle boluntarioak, zeinek aitona- amonekin egiten dituzten beraien biziaren zatitxo bat (MATIA). DBH 2ko ikasleak Haur hezkuntzako ikasleekin udaberri festan elkarketa egiten dutenean ere. Bi proiektu hauek urteetan errotuta egon dira.

Ikus: *Webgunea; Multimedia;*

70. Klaustroaren bitartez proiektu ezberdinen arteko komunikazioa bultzatzen dugu. Bertan koordinazioa eta integrazioa bilatzeko estrategiak bilatzen ditugu. Overclock, Axular News... adibide garbiak dira. Jakin nahi eta Etorbizuneko hirien proiektuak sortu baititugu.

Ikus: *Klaustroko aktak; Proiektuak; Aktak;*

71. EA21ekin konpromisoa hartua duten eta urteetan sendotutako estamentu ezberdinetako lan taldeak baditugu. Euskararen eguna antolatzeko lan taldea (ikasle eta irakasle), ikastolaren eguna antolatzekoa (ikasle, familia eta irakasle), danborrada (ikasle, familia eta irakasle), ikasleen agurra (ikasle, familia eta irakasle)...

72. Irakasleek gustura eta atseginez ekiten dituzte EA21eko eginkizunak, baina batzuetan ekintza horiek garatzeko denbora aurkitzeko zailtasunak egoten dira. Zaila izaten da denbora aurkitzea egiten diren ekintza eta proiektu kantitatea dela eta.

73. Urtero ospatzen diren eta finkatuta dauden jarduera pila burutzen dira ikastolan. Oso onartuak dauden ekintzak mantentzen dira eta berriak proposatzen dira ere. Adibidez: Udaberriko jaia, euskararen eguna, ikastolaren eguna, zikiro gaua, ikasleen agurra, danborrada, kilometroak ...

Jarduera berrien artean ingurumenaren nazioarteko egunaren ospakizuna izango litzake aipagarrienetarikoa. Pasa den urteko ekainaren 5ean ospatu genuen. Honelako ekintzak antolatu genituen: Gymkanak, ipuin kontaketak, pelikulen proiektzioak, Hondar 2050eko zuzendariaren hitzaldia eta dokumentalaren proiektzioa ...

Ikus: *Webgunea; ZUP; Multimedia;*

5.2 Ikastetxeen arteko elkarlana.	74.- Erakunde edo ikastetxeen arteko sareekin kolaboratzen du gure ikastetxeak: eskualdeko Eskolako Agenda 21eko koordinazio bilerak, proiektu komunak, mintegiak, komunikazioa, Interneteko plataformak, elkarbizitza...	8
	75.- Zentroko irakasleek beste ikastetxe batzuetako irakasleekin lan-taldeetan parte hartu eta kolaboratzen dute, esperientziak eta hezkuntza materialak trukatu.	9

Ebidentziak:

74. Eskualdeko EA21eko sarean kolaboratzen dugu. Inguruko zentroetako koordinatzaileekin, koordinazio bileratan ...

Ikus: *Koordinazio eta formakuntza bileren aktak;*

75. Zentroko irakasleek beste ikastola eta ikastetxeekin kooperazioan eta lan taldeetan egoten dira. Euskal Herriko Ikastolen elkarteko foro ezberdinetan, ikastolan arteko lankidetzak daramagu aurrera. Gainera, 7KP taldea, 7 ikastolen arteko partaidetzaren emaitza da eta bertan Orioko herri ikastola, Arizmendi ikastola, Tolosako Laskorain ikastola, San Fermin ikastola, Txantxiku ikastola eta Anoetako herri ikastolarekin batera parte hartzen dugu. Erkideren (Kooperatibak) bitartez, Euskal Herriko eta kanpoko beste ikastetxeekin elkar-lan prozesuak eramaten ditugu aurrera. Azkenik, Berritzeguneren bitartez, eskola publiko ezberdinekin ere ideiak eta ikuspegiak partekatzeko aukera izaten dugu. Horrez gain, gure Benchmarking prozesuaren ondorioz, Portugaleko, Andaluziako, Madrileko eta beste zenbait tokitako ikastetxeekin elkarlanean gabiltza.

Ikus: *Webguneko albisteak; Aktak; Formakuntza egutegia;*

5.3 Elkarlana udalerrian.	76.- Udalerriko jarduera parte-hartzaileekin bat egitera aktiboki motibatzen da hezkuntza komunitatea.	8
	77.- Tokiko Agenda 21eko Herritarren Foroetara joaten dira ikastetxeko ordezkariak	9

	(zuzendaritza, talde sustatzailea edo Ingurumen Batzordekoak), eta jasangarritasunera zuzendutako heziketa prozesuez informazioa trukatzeko.	
	78.- Udalerriko taldeekin (GKEak, elkarteak...) proiektuak garatzeko elkarlana sustatzen du ikastetxeak.	8
	79.- Ikastetxearen ingurua ezagutzen dute irakasle eta ikasleek: balio natural eta sozialak, eta arazoak ere bai.	8
	80.- Jasangarritasun planak eta dokumentu estrategiko ofizialak erabiltzen dituzte ikasle eta irakasleek: Udalerria, eskualdea, EAE, Estatua, Europakoa...	7

Ebidentziak:

76. Udalak antolatzen duen Eskola Agenda 21eko foroan parte hartzen dugu urtero. Cristina Enea fundazioak antolaturiko jarduera eta ekintzetan parte hartzen dugu (Itsaslamiak, Xixario, ONdakin, Eskolan konposta ...).

Lehen Hezkuntzako ikasleek Donostiako Udalak antolatzen duen Bide-Heziketa proiektuan parte hartzen dute. Saio praktikoa zein teorikoa batzuetan udaltzainen laguntzaz trafiko- eta bide segurtasun-arauak barneratzen dira.

Gure ikastola, Aieteko auzora irekia egon da bere jaiotzetik. Horretarako, inguruko komunitatearekin jarduera ezberdinak eramatean ditugu aurrera. Horien artean, goraiatzekoak urtarrilean danborrada, otsailean inauteriak auzora ateratzen ditugu, Santo Tomasetan ikasleek poztu publikoa jartzen dute; udaberrian ikastolako jaia antolatzen dugu familiei eta auzokideei irekiz; Kilometro jaian auzora denda ibiltaria ere atera, Korrika festa auzoan zehar antolatzen dugu,....

Ikus: ZUP; Webgunea; Multimedia;

77. Ingurumen batzordeko ikasleak izaten dira tokiko herritarren foroetara joaten direnak eta talde sustatzaileko partaideren bat joaten da beraiekin.

Ikus: Multimedia; Webgune albisteak;

78. Udalerriko GKEkin eta elkarteekin proiektuak garatzen ditugu elkarlanean. Hona hemen elkarleen zerrenda: Pausoka, Alboan, Matia fundazioa, FREMAP, Surfrider, Norbera, ONCE, Udal patronatua, SD etxadi, Judo eskola, Lakunza, Gero Axular Taldea ...

Ikus: Webgunea, ZUP;

79. Gure ikastolaren ingurua ezagutzera ematen dugu ikasleen artean. Horretarako, Aieteko bizilagunen elkartearen den Lantxaberekin dugun harremana ezinbestekoa da Katxola (Sagar inguruko lana) baserriaren inguruan ekintza ezberdinak aurrera eramanez. Miramoneko basoaren ezagutza ekintza ezberdinez lantzen dugu ere.

Ikus: Webgunea; Ekintza plana;

80. Gure ikasle eta irakasleek ikastolak jarraitzen dituen arautegi eta dokumentu ofizialei erantzuten diote. Barne Hezkuntza plana, Plan Estrategikoa, EA21eko helburuak eta ardatzak eta bestelakoak.

Ikus: Webguneko dokumentuak; EKKS;

6.- Curriculumua

Adierazle hau irakasleen ardurapekoa da, beraiek baitira Eskolako Agenda 21eko gidariak ikastetxean. Honekin, irakasleen ikuspuntutik hurbiltzen gara jasangarritasuneko hezkuntzako idealetara. Beste alderdi garrantzitsu bat ere badago hemen: irakasleen paperaren auto-erregulazioa, irakaskuntza prozesuari eta heziketa berrikuntzari begira.

Esparru honetan alderdi eta dimentsio ugari azter daitezke, baina proposatutako irizpideak hiru alorretan bilduko ditugu: bat, irakaskuntza-ikasketa prozesua (ikasle-irakasleak); bigarrena, heziketa berrikuntza (irakasle-taldea), eta hirugarrena, jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza.

Jasangarritasuna ez da kontzeptu estankoa eta aldaezina. Alderantziz, gure bizimodua, gizarte-bizitza, orain eta etorkizuna biltzen dituen paradigma dinamikoa da. Beharrezkoak diru herritar aktibo, sortzaile eta kritikoak.

Horregatik, esparru askotatik egin dakizkioke ekarpenak jasangarritasuneko hezkuntzari, eta saihestu egin behar dira esparru bakarretik egindakoak (normalean, natura-zientzietatik). Esparru bat sar dezakegu proiektuan baldin eta esku artean dugun arazoari ezagutza edo konponbideak gehitzen dizkio. Alderantziz ere, jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza aukera da enborreko esparruetarako, ikasleen eta komunitatearen egunero bizitzan eragin zuzena baitute. Jasangarritasuneko hezkuntzak testuinguruak, ikuspegiak eta adibideak eskaintzen ditu irakaskuntza-ikasketa prozesuak berrindatu eta berritzeko balio dezaketanak.

Urrats metodologiko berritzaileen seinale dira honako hauek: ekintzen dibertsifikazioa, material errealarekin lan egitea (klasikoak diren testuinguru birtual eta denboraz kanpokoak ahaztuz), konponbide posible ezberdinetako arazoak planteatu, autonomia gehiago lortzeko urratsak programatu, hizkuntza informatiboak dibertsifikatu, elkarlanerako aukerak egituratu, denbora, gune eta ikasgela multzokatzeen antolakuntza dibertsifikatu...

Bestalde, irakasleak hausnarketa egin behar du bere jardueraz, ea ikasleen aurrean duen jarrerak proiektuaren helburuekin bat datorren. Konpetentziak lortzeko irakaskuntza prozesuan ere hausnarketa egin behar da: ea ebaluaketak laguntza eta errefortzuak dakartzan hobekuntza behar dutenentzat, lortutako konpetentziak testuinguru zehatzetan praktikan jarriko diren, ea ikasleak autonomo eta arduratsu izateko nahikoa akuilatzen ditugun.

Ikasten ikasi behar da, horixe ere badakar jasangarritasuna ardatz harturik irakasteak. Hausnarketa egiten ikasi, alternatibak proposatzen,

horiek praktikan jartzen, ekintzak bideratzen, egoera arazotsuak konpontzen, erabaki egokiak hartzen. Hanka-sartzeak ere prozesuaren parte sentitu behar dira. Era berean, gure komunitateaz kontzientzia hartu behar dugu, beste pertsona batzuekin bizi garela, haiekin demokratikoki erlazionatzen garela; jakitun izanik iritzi desberdintasunak daudela, horiek elkarriketa eta enpatiaren bidez konpontzen ditugu.

Jasangarritasunak herritar aktibo, sortzaile eta kritikoak eskatzen baditu, irakasleek profil horri kasu egin behar diote. Aktibo eta kritiko izan behar dute prestakuntzan, hainbat alorretan: ingurumen hezkuntza, metodologia, emozioak... Berrikuntza proiektuek pisua dute ikastetxean eta, denborarekin, erreferentzia metodologiko bihurtzen, zenbait konturi aurre egiteko. Hau da, ez dira irakaskuntza-jardunean eten bat.

Berrikuntzan urratsa da halaber ikasleek proiektuen ebaluazioan parte hartzea. Haiei dagokie egiteko era berriak garatzea, eta ondorioz, inportantea da ebaluaketan egotea beren ikuspuntua eman dezaten berrikuntzan balekoa denaz edo hobetu daitekeenaz.

Azkenik, ikastetxeak jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzarako programa garatzea erabaki badu, azpiegitura egokia behar du hura garatzeko, horren barruan ulertuz prestakuntza, erantzukizunak eta baloreak partekatzea, eta ikuspegi metodologikoa adostea.

Eskolako Agenda 21 zenbait ikasturtez garatu ondoren, jasangarritasuneko hezkuntzarako proposamen bat finkatu ohi da, ezaugarri hauekin: irakasleen prestakuntza kontuan hartzen da (banaka, klastroan edo lantaldeetan egindako ikastaroen bidez), ardurak banatzeko konpromiso kontsekuentea dago, ikasleekin landutako balio eta printzipioak barneratzen ditu irakasleak, curriculumean eragiteko estrategia bat dago (dela zehar-lerroetan, diziplina-artekoa...), eta bere emaitzak berrikuntzarako eredu bihurtzen dira, eragina luzatuz metodologia, didaktika eta baliabide pedagogikoen erabilpena.

6.- Curriculuma		
	Kalitate irizpideak	Balioa
6.1 Irakaskuntza- ikasketa prozesuak.	81.- Urterik urte, Eskolako Agenda 21eko proiektu desberdinak maila zehatzetan integratzen dira, oinarriko hezkuntza bukatzerako ikasleek ingurumen hezkuntzaren kompetentzia pertsonalak, zientifiko-teknologikoak, sozialak eta zibikoak garatuta izan ditzaten.	8
	82.- Ikasten ikasteko irakasten dugu; pentsatzen, erabakitzen eta ingurumen arazoak konpontzen irakasten dugu.	8
	83.- Egin eta ekiten irakasten dugu, ideiak ekintza bihurtzen, irudimena erabiltzen, jarduerak garatzen eta ingurumen hobekuntza gaineko ardura hartzen...	8
	84.- Elkarbizitza irakasten dugu, parte-hartze demokratikoa, gatazkak indarkeriarik gabe bideratzen, elkarrizketaren bitartez.	9
	85.- Autonomia, ardura eta jarrera kritikoarekin bizitzen irakasten dugu.	8
	86.- Testuinguru anitzak erabiltzen dira, non ikasitakoaren funtzioa aplikatu eta ebaluatu daitekeen.	8
	87.- Ebaluaketaren ondoren, prest daude prozedurak laguntza eta errefortzua behar duenarentzat.	8
	88.- Irakasleak hausnarketa partekatua egiten du irakaskuntza-ikasketa prozesuan duen egiteko eta jarreraz.	8

Ebidentziak:

81. EA21eko proiektuan hasi ginenetik gure komunitate osoari helarazteko erronka izan dugu. Gure asetasun inkesten adierazleak oinarri izanda, kuantitatiboki guztiengana iritsi garelara ziurtatu dezakegu. Kualitatiboki hobekuntza egon daiteke beti.

Ikus: *Inkestak;*

82. HeziBerri 2020-k finkatzen dituen helburuei erantzunez, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza daramagu aurrera. Ikaslearen beharrei zuzenki erantzun nahian.

Ikus: *Heziketa proiektua;*

83. HeziBerri 2020-k finkatzen dituen helburuei erantzunez, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza daramagu aurrera. Ikaslearen beharrei zuzenki erantzun nahian.

Ikus: *Heziketa proiektua;*

84. Elkarbizitza, parte- hartze demokratikoa, gatazkak indarkeriarik gabe bideratzen, elkarrizketaren bitartez aurrera eramaten ikasteko, proiektu eta ekimen ezberdinetan parte hartzen dugu. Horien artean, Eusko Jaurlaritzak eskola bakegunetik martxan jarritako Adi- adian programan eta bestelakoetan parte hartzen dugu. Erronka hauei erantzuteko, berrikuntzen artean gaur egun dugun elkarbizitza batzorde berritua eta KIVAK proposatzen dizkigun estrategia ezberdinetan oinarrituta, asebetetze maila altua dugu.

Ikus: *Webgunea; KIVA; Elkarbizitza batzordeko aktak; Heziketa proiektua;*

85. HeziBerri 2020-k finkatzen dituen helburuei erantzunez, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza daramagu aurrera. Ikaslearen beharrei zuzenki erantzun nahian.

Ikus: *Heziketa proiektua;*

86. Testuinguru anitzak erabiltzen ditugu erronka ezberdinak eta ikasleen garapenerako egoerak sortuz. Adin eta beharren arabera, proposamenak ere egokitzen dira.

87. Gure orientazio plan eta estrategiak erabiltzen ditugu behar bereziak dituzten ikasleentzat. Ume eta gazte bakoitza bakarra dela sinistuz, bakoitzarentzat ibilbide pertsonalizatua diseinatzen dugu.

Ikus: *Orientazio plana;*

88. Irakasle guztien komunikazioa, irakaskuntza- ikasketa prozesuaren elkartrukea, hausnarketak ... bideratzeko Ziklo bilera, Etapa bilerak, Klaustroak eta batzorde bilerak erabiltzen dira.

Ikus: *Bileren eta batzorde ezberdinen aktak;*

6.2 Heziketa berrikuntza	89.- Irakasleen prestakuntza planean metodologia eta didaktikaren inguruko prestakuntza ageri dira.	10
	90.- Irakasleen prestakuntza planean kontuan hartzen dira alor hauek: garapen emozionala, sentimendu eta jarrerak.	10
	91.- Ikastetxeak berrikuntza proiektuak, mintegiak, eta abar bermatzen ditu.	10
	92.- Ikasleekin batera baloratzen dira irakas-ikas jarduerak eta heziketa berrikuntzarako proposamenak, ikerkuntza, kalitate planak eta etengabeko hobekuntza.	8
	93.- Proiektuetako esperientziak finkatu egiten dira, eta alor eta ikasgai desberdinetarako metodologia eta didaktika eredu bihurtzen dira.	9
	94.- Liburuak erosten dira, eta aldizkarietara harpidetza egin, ingurumen hezkuntzaz, didaktikaz, eta gaitasunen garatzeaz.	8

Ebidentziak:

89. Irakasleen formakuntza planean metodologia eta didaktikaren inguruko prestakuntzak ageri dira.

Adibideak: JumpMath, TBL, eskuhartze goiztiarra, Inika, Izandig, Pictoescritura ...

Ikus: *ZUP; Formakuntzen egutegia;*

90. Garapen emozionala, sentimenduak eta jarrerak kontuan hartzen dira irakasleen formakuntza planean. ZTak langileen formazio eta lan ibilbideen datuak jasoz, baita gure ahalmenen matrizean irudikatutako profilarrekiko egokitasuna konprobatzearen ardura hartuz ere.

Ikus: *ZUP; Formakuntzen egutegia; Inkestak;*

91. Ikastolan proiektu berritzaileen bultzada eta lanketa nabaria. Bai ikastolatik kanpo erakunde batekin lankidetzan sorturikoak eta bai ikastola barnean, elkarlanean, sorturikoak. Adibideak: Jakin nahi, etorkizuneko hiriak... Proiektuak: Overclock, Cansat, EA21, KIVA, Mindfulness, Matia, Axular News ...

Ikus: *ZUP; Webgunea;*

92. Periodikoki, galdetegi eta inkesta ezberdinen bitartez, irakas-ikas jarduerak eta heziketa berrikuntzarako proposamenak, ikerkuntza, kalitate planak eta etengabeko hobekuntza planak proposatzen dira. Bai, bakarkakoak baita ere taldekoak edota metodologikoak. Adibidez: Gazteen lege biltzarrean jasotako proposamenak, ingurumen batzordeko proposamenak ...

Ikus: *Gazte legebiltzarreko akta; IB aktak;*

93. Ikasturtero ekintza planak eta moldaketak eramaten dira aurrera gure metodologia eta egiteko erak ditugun helburuei erantzun nahian.

Ikus: *Urteko helburuak; ZUP; Memoriak;*

94. Harpidetzak murriztu egin dira, papera- zero helburua lortu nahian. Urtetik urtera liburu eta aldizkari gutxiago erabiltzen ditugu. Adibidez, Lehen hezkuntzan, Lengua Castellana ikasgairako metodologia aldatu egin dugu, Voxprima deituriko metodologiarekin hasi gara. Liburuak erabili ordez Pictoescritura sarean edo plataforman dagoen materiala lantzen dugu. Beste adibide bat Matific plataforma da, lehen hezkuntzako bigarren zikloan erabiltzen dugun matematikako sarea.

Ikus: *Voxprima; Matific;*

6.3 Jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza	95.- Ikastetxean ingurumen hezkuntzarako prestakuntza plan bat dago, irakasle guztientzat.	6
	96.- Eskolako Agenda 21eko koordinatzaileak txandakatzekeo plana dago, prestakuntza eta gaitasunak hedatzen joan daitezen irakasle kopuru egoki batean, Eskolako Agenda 21 ondo garatu dadin.	8
	97.- Alor, ikasgai edo esparru desberdinetako irakasleek proiektuak edo diziplinarteko sekuentzia didaktikoak prestatzen kolaboratzen dute.	8
	98.- Irakasle guztiek barneratu dute ingurumena errespetatzeko balioa hedatu behar dela ikasleen artean, eta kontsumo arduratsua eta herritartasun demokratikoa ere bai.	9
	99.- Zeharkakotasunetik, diziplina arteko ikuspuntutik, proiektu global edo lokalen ikuspegitik, dago jasota ingurumen hezkuntza curriculumean.	9
	100.- Jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzak heziketa berrikuntza bultzatzen du ikastetxean (metodologia, didaktika, baliabide pedagogikoen erabilpena).	9

Ebidentziak:

95. Formakuntza plan orokor bat dugu eta bertan urteko helburuei erantzunez gai honen inguruan ere formakuntza helburuak finkatzen dira. Normalean klaustro bileratan burutzen da formazioa. Horrez gain, Cristina Eneatik, Eathinketik Etorzen zaizkigu adituak. Espreski, ingurumen hezkuntzarako formazio plana diseinatzeko hausnarketa prozesuan.

96. EA21 koordinatzailearen paperaren garrantzia eta balorea kontutan izanda, urte batzuetako jarraipena behar dituela pentsatzen dugu. Egonkortasun horrek erakundea gai honekiko hobeto ezagutu eta gaia estamentu guztietara zabaltzeko aukera eraginkorrak ahalbideratzen dituela iruditzen zaigu. Gainera, txandakate estrategia horri begira, gaur egun dugun erreferente horrekin egin genuen bezala etorkizunean nahi dugun EA21 koordinatzaile eredu argi dugu.

97. Klaustroen bitartez eta barne komunikazioaren eraginez, hainbat proiektuen arteko elkarlana bultzatzen eta burutzen da. Adibidez, EA21 proiektuak Overclock eta Axular News proiektuekin burutzen dituen ekintzak. Alde batetik, etorkizuneko hiriak gaia ardatz edukita lorategi bertikalak instalatzen hasi gara eta etxean sortu daitekeen konpost bizkor bat ikertzen hasi gara. Beste aldetik, gure familien laguntzarekin baratzeko lanen eta komunikabideen lanketa egin nahi dugu.

Ikus: *Overclock (FLL); Jakin Nahi;*

98. Irakasle gehienak ingurumena errespetatzeko jarrera eta konpromezua barneratuta dute. Kafe makinetatik edalontziak hartu ordez edateko katiluak erabiliz, hamaiketarako plastikoak erabili ordez tupperrak ekarriz, hondakin ezberdinen sailkatze eta birziklapenaren bitartez...

99. Egunerokoan aurrera eramaten dugun lan horrekiko, diziplinarteko eta zeharkako proposamenek gai honekiko lortu nahi ditugun helburuak lortzeko aukera handiagoak ematen dizkigu. Curriculum kontutan

izanda bada ere, inguruko "konexio" horiek ematen dizkiguten tresna eta aukerei etekina ateratzen saiatzen gara. Curriculumean bertan ere jasota dago gai honen inguruan landu eta lortu beharrekoa. 100. Ikastolako barne kulturari erantzunez, Jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzak heziketa berrikuntza bultzatzen du gure ikastolan metodologia, didaktikan eta bestelakoetan eragin zuzena izanez.

Gogoeta Gehigarriak

- 1.- IKUS ataleko dokumentazioa eskuragarri egongo da informatikoki edota paperean gurekin kontrastatzeko.
- 2.- Ebaluazioko kalifikazio zenbakituan, lau urte hauetan gure ustetan gorakada izan duten item-en emaitzak berdez markatu ditugu eta beherakadak jasan dituztenak, aldiz, gorriz.
- 3.-
- 4.-
- 5.-

Izenpetuta

Ikastetxeko zuzendaria

**Eskolako Agenda 21eko
koordinatzailea**

**Irakasle-taldearen
ordezkaria**

BERRITU BEHAR DUTENENTZAT

IKASTETXEA	Axular Lizeoa
ARDATZA	Parte hartzea
HOBKUNTZAREN TITULUA	Axularreko gazte legebiltzarra
ARDURADUNAK	Hodei Mayoz
NORI ZUZENDUA	Ingurugela

HOBKUNTZAREN DESKRIBAPENA

Lehen Hezkuntzako 6. mailatik Batxilergora arteko ikasleekin aurrera eramango dugun Axular Lizeoko Gazte Legebiltzarra aurkeztu nahi dizuegu.

Gure Gazte Legebiltzarrak ikastolako ikasle eta ikasle ohiak ordezkatzan dituen organo gorena izan nahi du. Bertan, gazteen partaidetza sustatu eta bideratu nahi dugu beraien eskubideak eta interesak defendatuz.

Ikasle-gazteei benetazko hitza eman nahian, beraienzat oso urruti geratzen zaizkien erabaki organoetara hurbilduko ditugu modu aktibo batean parte hartuz. Parte hartze honek, protagonista bihurtuko ditu eztabaidatu eta hartutako erabakiak bueltan gure erakundera ekarri eta garatzeko.

Ikastolaren izaera kooperatiboaren balore demokratikoak landuz eta garatuz, hiritar gazte solidario eta elkarlanerako prestuak nahi ditugu. Horretarako, hitza hartu eta hobekuntzak proposatzeko tresna izango dute.

HOBKUNTZAREN EBIDENTZIAK

Gure egitasmoa aurrera eraman nahian, lotura honetan

Laburpen Bideoa:

https://www.youtube.com/watch?v=9ohRbFknLcA&feature=emb_logo

topatuko duzuen bi minutuko bideoan, proiektu honen ildo nagusiak ezagutuko dituzue.

Argazkiak, albisteak, akta ondorio eta erabakiekin.

HOBKUNTZAREN BALORAPENA

Momentu honetan lehen urratsak eman ondoren, balorapena ezin hobea dela esan genezake.

BERRITU BEHAR DUTENENTZAT

IKASTETXEA	Axular Lizeoa
ARDATZA	Kudeaketa
HOBKUNTZAREN TITULUA	Organikoa/ hondakinen kontrola
ARDURADUNAK	Hodei Mayoz
NORI ZUZENDUA	Ingurugela

HOBKUNTZAREN DESKIBAPENA

Pasa den ikasturteetan organikoaren eta gainontzeko hondakinen kontrola eramateko plana prestatzen hasi ginen. Aurten, planari itxura eman diogu eta ingurumen batzordeko gurasoen laguntzari esker eta ikastolako estamentu ezberdinen parte hartzearekin, ikastola barneko zabor guztien eta kontsumo guztien kontrola eramatea lortu dugu.

Ikastolaren kanpoaldean organikoa botatzeko edukiontzia beharra genuen. Aurten udaletxearekin kontaktuan egon eta gero, edukiontzi hori jartzea lortu dugu. Gure organikoko barne kudeaketan asko lagundu gaitu. Modu horretan, konpostgailuaren eta edukiontzia artean banatu ditzazkegu hondakin organikoak.

HOBKUNTZAREN EBIDENTZIAK

EKKS plataforman gordetzen dugun excel dokumentuan bildutako datuak eta sortutako grafikoak ikus daitezke ikasturtean egon den bilakaera ikusteko.

Horrez gain, ikastolako langileei emandako eta bete beharreko taulak ere ikusgai daude.

Konpostagailua eta organikoko kanpoaldeko edukiontzia.

Organikoak biltzeko egutegia. (HH eta LH)

Multimediako argazkiak.

HOBKUNTZAREN BALORAPENA

Lehen hilabete hauetan ikusitakoaren balorazioa ona izan da. Hasieran kostata eta zailtasun ugari aurkitu genituen, baina gerora egunerokotasunean lagundu gaitu kontrola eta kudeaketa hobea eramateko. Horrez gain, ikasleen parte hartzea oso deigarria izan da. Beraiek baitira organikoak konpostagailura edo edukiontzira eramaten dituztenak (LH eta HH).

BERRITU BEHAR DUTENENTZAT

IKASTETXEA	Axular Lizeoa
ARDATZA	Curriculuma
HOBKUNTZAREN TITULUA	Etorkizuneko hiriak
ARDURADUNAK	Hodei Mayoz eta Josetxo Sanchez
NORI ZUZENDUA	Ingurugela

HOBKUNTZAREN DESKRIBAPENA

2019-2020 ikasturtean "Etorkizuneko hiriak" gaia ardatza edukita Overclock taldea (First Lego League) EA21arekin elkarlanean, lorategi bertikalaren proiektua eta etxe barneko konpostaren proiektuak martxan jarri dituzte.

Ikasle batzuen gurasoen laguntzarekin, plataformak eraikitzen hasi gara eta lehenengoak instalatzen ere. Baratze guneko kanpoaldean instalatu genuen lehenengo eta besteak, ikastolako aterpearen ondoan.

Proiektuaren lanketa Bigarren hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen artean egiten da. Hala ere, Haur Hezkuntzako ikasleen laguntza izan dute zenbaitetan, materia organikoa lortzeko eta biltzeko.

HOBKUNTZAREN EBIDENTZIAK

Overclock portfolioa. <http://www.axular.eu/mahara/view/view.php?id=4142>

Baratzeko portfolioa. <http://www.axular.eu/mahara/view/view.php?id=4007>

Multimedia argazkiak. (EKKS)

Bileren aktak (EKKS)

HOBKUNTZAREN BALORAPENA

Proiektuaren balorazioa ikasturte amaieran egin beharko da. Ideia proiektua errotzea eta sendotzea da, etorkizuneko situaziora hurbiltzeko.

